


IV. «ETXEPE SARIA»



ELGOIBARKO UDALA

HITZAURREA

Estueta duzua bilduma-liburuak hau 1989ko IV. «Etxepe Saria» Idaz Lehiaketan irabazte otera ziren idazlanetako dagoenak.

Bertara 87 lan aurkeztu ziren denak: 64, O.H.O. mailan; 10, Ikasketa Ertainetakoan mailan; eta 13, maila nagusian. Horietan, azpimarratzekoa da partehartzaileen kopuru handi hau, baita ere adin horietakoak izanik. Are gehiago eratziazunera eta eroso-tasunera emanik dagoen mundu teknifikabi eta axaleko honetan garatuko hauek langintza horretan buru-belarri murgilduek ikusien ditugutuen.

Ezin esan daiteke idazteko gogoia eta afizioa zein adinean sortzen den, baina gurean edo gurean salotxoren bat egin gabeko idazle gutxi irabazteko da horietan. Adin horietan, gazte-txokoan idazteko gogoia eta afizioa eroso-tasunera emanik dagoen mundu teknifikabi eta axaleko honetan garatuko hauek langintza horretan buru-belarri murgilduek ikusien ditugutuen.

IV. «ETXEPE SARIA»

1990. urtea

Oker ez banabil, horixe zen Etxepe entrepresak ezarritako armoian zuen helburu nagusia, eta Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarrak ere beharrik dituztenen. Jarrai bezate berritani

Andrés Alberdi

AURKI HITZAURREA

Eskuetan duzun bilduma-liburuska hau 1989ko IV. «Etxepe Saria» Idaz Lehiaketan irabazle atera ziren idazlanez dago osatua.

Bertara 87 lan aurkeztu ziren denera: 64, O.H.O. mailan; 10, Ikasketa Ertainetakoan mailan; eta 13, maila nagusian. Horrela, azpimarratzekoa da partehartzaileen kopuru handi hau, batez ere adin horietakoak izanik. Are gehiago erraztasunera eta erosotasunera emanik dagoen mundu teknifikatu eta axaleko honetan gaztetxo hauek langintza horretan buru-belarri murgildurik ikusten ditugunean.

Ezin esan daiteke idazteko gogoia eta afizioa zein adinetan sortzen den, baina umetan edo gaztetan saiotoxoren bat egin gabeko idazle gutxi izango da bazterretan. Adin horietan, gaztetxoak mundua mugagabeko erakustokizat hartzen duenean edo-ta, gozamen modura nahiz sofrikario gisa, gaztearengan, pil-pilean, norbere sentimenduen etengabeko loratzea gertatzen denean, literatur sorkuntza zergatik ez hartu bakoitzaren hausnarketa sakonenen ispilu? Eta hori guztiori euskaraz, noski. Kirol mailan egiten den erara, jardunaren poderioz, gure haurrak eta gazteak ohitu egin behar ditugu idazten eta irakurtzen, eta euskaraz bizitzen, beronen «normalizazioa»ren atzetik.

Oker ez banabil, horixe zen Etxepe entpresak haserako asmotan zuen helburu nagusia, eta Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarrak ere babesten dutenean. Jarrai bezate horretan!

Andres Alberdi

AZALA: Alex Arriola

AURKIBIDEA

A. MAILA (O.H.O.-ko Maila)

1. Saria: «ZULOA».
Mikel Artola Iriondo9
2. Saria: «EZ ZEN ZIOTEN BEZALAKOA».
Ainara Burgaña Aranburu17
3. Saria: «CHOKI ETA NI».
Asier Orbea25

B. MAILA (ERTAINETAKO MAILA)

1. Saria: «LAUTERDI».
Bingen Sasiain Sesma31
2. Saria: «ETA KOBLAKARIA TRISTE ZEGOEN».
Iban Barrenetxea41
3. Saria: «MONJABURU IZENDATU NINDUTEN».
Maria Zubiaurre Muguruza55

C. MAILA (HELDUEN MAILA)

1. Saria: «NIRE AITONAREN BIHOTZEAN».
Alberto Ansuategi65
2. Saria: «SUDUR BATEN GORABEHERAK».
Diana Perez de Albeniz75
2. Saria: «INSIGNIS SINGULARIS».
Alfonso Guillo87
2. Saria: «PANPOXO, NIRE LAGUNA».
Mirian Villasante99

AZALA: Alex Arrieta

AURKIBIDEA

A. MAILA (O.H.O.-ko Maila)

| | |
|-------------------------------------|----|
| 1. Saria: «ZULOA» | 9 |
| Mikel Artola Iriondo | |
| 2. Saria: «EZ ZEN ZIOTEN BEZALAKOA» | 17 |
| Ainara Bureña Atamburu | |
| 3. Saria: «CHOKI ETA NI» | 25 |
| Astier Orbea | |


B. MAILA (ERTAINETAKO MAILA)

| | |
|--|----|
| 1. Saria: «AUTERDI» | 31 |
| Bingen Sasiain Sesma | |
| 2. Saria: «ETA KOBIAKARIA TRISTE ZEGOEN» | 41 |
| Iban Barrenetxea | |
| 3. Saria: «MONIABURU IZENDATU NINDUTEN» | 55 |
| Maria Zubizarne Muguruza | |

C. MAILA (WELDUEN MAILA)

| | |
|---------------------------------------|----|
| 1. Saria: «NIRE AITONAREN BIHOTZEAN» | 65 |
| Alberto Anasategi | |
| 2. Saria: «SUDUR BATEAN GORABEHERRAK» | 75 |
| Diana Perez de Albeniz | |
| 3. Saria: «INSIGNIS SINGULARIS» | 87 |
| Alfonso Guilló | |
| 4. Saria: «PAINOXO NIRE LAGUNA» | 99 |
| Milán Villasmita | |

AZALIA: Alex Arizón



Mikel Artola Iriondo
O.H.O mailan 1. Saria.

Zuloa

Trisagailuak e... Buruko min...
 zuela laster igarri... zizkidan. Ira...
 (Bergailuak amon... ek jarriko ote...
 zoen? Buruko min... Naxkara...
 neuzen egia esan... Naxkara...
 kiloa bezain laster... Naxkara...
 kuan ezin izan... Naxkara...
 Abuzuko gog... Naxkara...
 baina birnigatu... Naxkara...
 an utzindako... Naxkara...
 neuruz nab... Naxkara...

Denak lehen bezala zegoen, baina ez nire gurusoak joan...
 nak bazen oporretan...
 ez nengoen herriko...
 prest. Txarrena...
 esan, ez nintzen...
 ez zion atdura, segituan iragango zuzaitzidan hamabost egun...
 arruntz frijituak janaz.

Zerbatz egia behar...
 osan ezan...
 deitzen aipatzen...
 nintzen...
 iragun...
 iragun...
 iragun...

Beste...
 kuden...
 nintzen...
 nintzen...

Eguraldi...
 erdi...
 zen...
 ez...
 ez...

Nire...
 karak...



Mikel Artola Iriondo
O.H.O. mailan A. Sarin

Zuloa

Zuloa

Iratzargailuak esnatu ninduen nire ohe berotik. Buruko mina nuela laster igarri nuen buruak birak ematen bait zizkidan. Iratzargailuari amorruez beterik begiratu nion. Zeinek jarriko ote zuen? Buruko minak gogoratzea galerazten zidan. Nazkatua nengoen egia esan, eta ahal nuen bezela ohetik jaiki eta barrazkiloa bezain lazter zeharkatu nuen pasaia. Egon-gelako jarlekuan exeri nintzen. Ez nekien zer egin, baina, zer egin nezakeen Abuztuko goiz txit aspergarri batean? Liburu bat hartu nuen, baina bi minutu iragan ondoren lurrean aurkitzen zen nire eskuak jaurtiki bait zuten liburua.

Dena lehen bezala zegoen, beno, dena ez nere gurasoak joanak bait ziren oporretara. Aurten ez nintzen beraiekin joan zerez ez nengoen herriko jaiak hamaikagarren aldiz jarraian galtzeko prest. Txarrena beharbada, jaterakoan izango zen zeren egia esan, ez nintzen bost sardexka merezi nituen sukaldaria. Baina ez zion ardura, segituan iragango zitzaizkidan hamabost egun arraultz frijituak janaz.

Zerbait egin behar nuela konturatu nintzen; ezin nintzen goiz osoan etxean egon buruko minak astintzen ninduelarik. Lagunak deitzea aproposena ez zela pentsatu ondoren nire logelara abiatu nintzen jantzi ondoren mendira joateko ideiak nire burbuina iragaten zuen bitartean.

Txandala izan zen nire gorputz nagia hornitu zuena. Besterik gabe etxeko atea itxi eta buruko mina baretzeko prest mendiko bidean jarri nintzen.

Eguraldi eskasa egiten zuen Abuztuko goiz batetarako. Zerua erdi estalirik zegoen, eguzkia batzutan piskatxo bat ateratzen zen geroxeago berriro hodei artean eskutatuzko. Indar nahikoa ez zuela argi eta garbi nabaritzen zen.

Nire pausoak ez ziren korrikalari batenak bezain azkarrak

baina motel-motel gailurrera gerturatzeko ari nintzen. Haizea izugarri ona zen eta birrikak garbitzeko une oso ona zela oharturik bizpauru aldiz arnasa hartu nuen. Belarra lehor zamarra zegoela nabaritzen zen. Harri baten gainean exeri nintzen ixiltasunaren artean.

Bapatean ahots baxu batek ixiltasuna hautsi zuen, ahotsa oso baxua izan arren zuhaitz talde batetik zetorrela ohartu nintzen. Bapatean, lurretik «estalki» antzeko bat zabaldu zen hango lurra jasoaz. Gazte bat atera zen handik «estalkia» zabalik utzi zuelarik. Gaztea ez zen oso garaia baina ezta ere txikia. Ilea gogorra zuela zirudien, aurpegia zurbila eta begirada zorrotza. Mehea zen eta bere azala beltzarana, inoiz ez garbitu bazuen bezala. Ez zirudien hemengoa, Hegoamerikar itxura zuen. Zuhaitz artean sartu zen. Poliki poliki haruntz abiatu nintzen eta jakinminez «estalki»-ko zulora begiratu nuen, eskailerak zeuden, ilun zegoenez ezin nuen besterik ikusi.

Pistola batek apuntatzen ninduela ohartu nintzen:

—Jaits itzazu eskailerak mugimendu arrarorik egin gabentzirikatu zuen ahots urduri batek.

Beldurturik nengoen eta ezin nuen ezertxo ere esan.

Traketski eskailerak jeitsi nituen eta gelatxo batean sartu nintzen. Gela txit iluna zen eta itxitako usaina zegoen. Zikiña zen ladriluz estalirik orma haiek kalifikatzen zituzten adjetibo bakarra.

Ni apuntatzen ninduan tipoak aulkiz inguraturik zegoen mahaira bultzatu ninduen. Bertan hiru gizon zeuden; erdikoa gizon garaia zen (jarririk egon arren nabaritzen zen), mehea, ez zirudien txit indartsua, baina bai trebea. Hogeitamar urte zituen gutxi gora behera eta begirada beldurgarri batez saritu ninduen. Alboko gaztea beltzarana zen eta bere begirada urrutira zuzentzen zen. Beste aldean... Santi zegoen. Santi herriko gazte bat zen, lodia, motela eta nagia. Berak begiratzen ez ninduen arren, eta bistaz bakarrik ezagutzen nuen arren (herrian ez genuen elkar

hitzegiten), poztasunezko agur bat bidali behar nionean, atzeko gazteak, ixiltzeko aginduz, kolpe lehor bat oparitu zidan.

—Zein da? —galdetu zuen erdian jarririk zegoen «sujetoak»

—Ez dakit, —esan zuen apuntatzen ninduen gazteak— baina, sarrera zegoen erakutzen.

—Zeeer? —garrasi egin zuen erdiko gizonak bere Hegoamerikar azentoaz— Eta orain zer egingo dugu, eeeh, zer? Alu honek dena esan dezake —mahaian zeuden orri guztiak bota zituen.

—Ba, ba —esan zuen urduri apuntatzen ninduenak— konortea galdu arazi egingo diogu, edo... Denboralditxo batean droga sartuko diogu kantitate izugarrietan guztiz tontotu arte, eh?

—Aski da!!! —ohikutatu zuen Hegoamerikarrak bere aulkitik jaikiaz— Dena zure esku uzten dut Rodrigez, zerbait egin beharko duzu alu honek ezer esan ez dezan —esan zuen mehatxu giza— Hiru egun barru etorriko naiz Bolibiatik eta ez baduzu zerbait egiten, —pistola bat atera eta Rodrigez apuntatu zuen —damutuko zara— erantsi zion doinu samur batez.

Ondoren, Hegoamerikarrak eskailerak igo zituen eta «estalkia» zabaldu zuenenan agindu zuen:

—Ni etorri arte ez ezazue ezer saldu.

«Estalkia» jaso zuen eta handik atera zuen bere gorputz luzea, geroago zarata batzuk entzun ziren eta «estalkia» lokatzez estaltzen zegoela konturatu nintzen.

Zarata hauek gelditu zirenean, Rodrigezek soka batez lotu ninduen gazteleraz madarikazioak esaten zituen bitartean.

Pare bat minutuz, indar guztiaz aztindu ninduen eta ondoren sokak kendu eta gelatxo batean sartu ninduen. Amorrutik izugarria eman zidala aitortzen dut, baina, zer egin nezakeen?

Gela oso txiki batean sartu ninduen, ez zegoen apaindurik eta ormak, ladreiluz zeuden osaturik. Izugarritzko fardel batzuk betetzen zuten gelatxoaren zati handiena. Fardelak aztertu nituen. Laster konturatu nintzen fardelen edukieraz: droga, eta gainera droga gogorra.

Beldurra nabaritzen nuen, «alijo» hark ondorio onak ez zituela ekarriko ziur nengoen. Huskeri batean ez nengoela argi baino argiago zegoela banekien eta baita «kamello» haien artean ez nuela etorkizun positiboa, bizitza bait nuen jokoan.

Hau pentsatzen eta Rodrigezen oihu agintarien artean, logure nitaz jabetu zen...

Esku batek eragindako kolpetxoak, nire ametsetatik atera ninduen. Santi zen eta bere esku koipetsuaren bidez ixilik ibiltzeko esaten zidan. Ondoren bera jarraitzeko adierazi zidan. Beste gelara sartu ginen eta han, Rodrigez lotan zegoen aulki baten gainean. Santiren aginduak jarraituz bera aurreratu genuen. Eskilarak igotzen hasi nintzen. Estalkia zabaldu eta irte-teko prest nengoenean, nire patrikatik txanpon bat irten zen lurrera jausiaz.

Zarata oso ozena izan ez arren, Rodrigez esnatu zuen tamalez:

—Zein dabil hor!!! —oihukatu zuen gazteleraz.

Ezin izan nituen egin zituen mugimenduak ikusi baina bere pistolaz Santiren bizkarra zulatu zuela konturatu nintzen:

—Santi, Santi —esan nion txit urduri, baina laster utzi behar izan nion esistitzeari utzi ziolako.

Ahal izan nuen azkarren korrika egiten hasi nintzen, Rodrigez atzean nuen eta izugarritzko beldurrak nere gorputza zeharkatzen zuen. Burua galtzen hasi nintzela ohartu nintzen, Santi hil nuela sentitzen nuen, nire burutik miloika ideia pasatzen ziren! Gero eta gaizkiago nengoen, eta norabiderik gabe nihoan...

—Eeeez! Eeeez! Eeeez! —oihukatzen nuen.

—Hi, lasai egon hadi, amets gaiztoa izan dun, baina lasai mutil-gizon bizardun baten ahots lodiak esnatu ninduen.

—Baina, non nago? Zein zara zu?

—Non zauden, ba hemen, kamioi batetik jetsi ondoren etorri zaren lekuan —erantzun zidan patxaraz.

Laster gogoratu nuen nola, Rodrigezek jarraitzen ninduen bitartean kamioi baten atzekaldera saltatu nuela. Kamioia albo-

ko herrian geratu zenez, nik ere han gelditu beharra izan nuen.

Pentsamendu haietatik urrunduta nintzen. Nire gosea izugarria zen, pare bat elefante ere ez ninduten asetuko. Bapatean kalearen beste aldean laban bat ikusi nuen. Bapateko mugimendua izan zela esan dezaket, burmuina ez bait nuen nahi bezain ongi. Santirengan pentsatzen hartu nuen laban hura.

Besterik gabe, droga aurkitu nuen lukuruntz abiatu nintzen buruak itzuliak ematen zizkidan bitartean.

Egia esan, hara heldu nintzenean ez nuen Rodrigez han ikustea espero baina, nire begien harriduraren aurrean aurkitu nuen. Estalkia zegoen tokian zegoen, zementozko ontzi bat ondoan zuelarik. Estalkira lokatza botatzen zegoen eta laster konturatu nintzen ze asmo zituen: estalkia zementoz estali zuen gainetik lokatza botatzeko. Drogena handik aterata izango zuen eta Santi ordea, han barruan egongo zen usteltzen hasia.

Labana hartu nuen. Nire buruak autopista bat zirudien; gauza piloa iragaten ziren bata bestearen jarraian izugarritzko abiadan: hil egin behar dut, ez, ezdut hil behar...

—Madarikatua!!! Zeuk hil duzu!! —oihukatu nuen labana ahal nuen indartsuen sartzen nioen bitartean.

Egia esan, handik aurrerakoa ez dut oso ongi gogoratzen: Rodrigez hil ondoren ikaraturik geratu nintzen, baina ezin nuen atzera egin eta zoroan pare herriruntz abiatu nintzen. Garrasika sartu nintzen poliziaren gelan, eta txit urduri dena kontatu nien...

Rodrigezen gorpua aurkitu zutenen ni espetxeratu ninduten nire protesten artean. Bi egun iragan nituen han eta bi egunen ondoren, ez Santi, ez drogarik, ez gordelekurik eta ez zementurik aurkitu zutela jakin nuen. Gero bi gizon zuridunek (protesta giza esaten nuen guztieri baietz esaten zioten) hartu eta eurokin eramana ninduten.

Eta orain hemen nago, istorio hau zuei kontatzen, gizon zuridunak eramana ninduten lekutik, hau da, zoroetxeko zoro arriskutsuen sailetik.

Dena argiarazten saiatu naizela baiezta dezaket, baina argitzeako ematen ditudan pauso guztiak etorkizun ziorra ez dutela pentsatzen dudanez, hemen jarraitu beharko dut.

Egia esateko, nire ilusioa hanketan dut baina hala ere poztu nezakeen gauza bakarra zera da: zuk ni zoraturik ez nagoela pentsatzea. Eta zuzenean nago, ezta?...



Ainara Burgaña Aranburu
O.H.O. mailan 2. Saria

Ez zen zioten bezalakoa

Mezdirako bidexka hiru zuen. Herriko kaleekin koaparatuz iragarritzko eskatzearekin abarmentu zituzten. Guro honet, ziztrata berez bat sortuzien zion Eguzkiri. Hasi goizan lanegian kutsadurarik, zikinkeriarengandik eta kalteakote iskanbillaren-gandik babestua sentitzen zen.

Txerrien eta naturako beste zeharri parraideen hotsak entzuten zioten eta honet, zentzuzko alaitzen zuen. Bidexka hura hiru zuenetik, gogoz zabaldu zituzten eta bete sabela ongi behar ondoren, aurrera jarraitu zuten.

Ez zen zioten bezelakoa

Eguzkik hirugarren aldiz begiratzen zion bere aurpegi goibelari. Ezezaguna egiten zitzaion aurrez-aurre ispiluan zeukan aurpegi hura. Bakarrik sentitzen zen. Ez zeukan norekin jolastu ez etxean eta ez kalean. Ama, egunero bezala, lanean zegoen eta aita, Ingalaterran ingelez apur bat ikasten. Amonak eta aitonak, dagoenenko itxi zituzten begiak betirako. Egunean zehar emakume bat bakarrik ikusi ohi zuen eta berau nazkagarria zen. Eguzkitaz arduratzen zen, baina alferrikako lana egiten zuen, zeren Eguzkik beti alde egiten zion eta bere habian sartu ondoren, ez zuen uzten bertan inor sartu zedin. Dagoeneko bost uda pasa ziren Eguzkik argi eman zuenetik, eta denetatik traketsena seigarren hau ari zitzaion suertatzen. Ez zekien bere tristura hartatik nola babestu. Ezin zituen bere arazoak inorekin eztabaidatu. Nahiz eta oraindik bost urte eduki, pertsona nagusi batek bezala pentsatzeko ahalmena zeukan. Bere pentsamendu goibel haiei atea itxi eta zerbait dibertigarriagoa egitea erabaki zuen.

Etxean bakarrik zegoenez, eta larunbatero bezala ama bileran zegoenez, baso aldera joatea erabaki zuen. Kirol arropak eta zenbait janarirekin beteta zeraman poltsa prestatu eta ateari danbateko bat emanez, korrika irten zen.

Mendirako bidexka hartu zuen. Herriko kaleekin konparatuz izugarrizko askatasuna nabarmendu zitekeen. Giro honek, zirrara berezi bat sorterazten zion Eguzkiri. Han goian, lantegien kutsaduratik, zikinkeriarengandik eta kaleetako iskanbilarengandik babestua sentitzen zen.

Txorien eta naturako beste zenbait partaideen hotsak entzuten zituen eta honek, zertxobait alaitzen zuen. Bidexka hura hartu zuenetik, gosea zabaldu zitzaion eta bere sabela ongi bete ondoren, aurrera jarraitu zuen.

Eguzkik ba zekien inguru haietan norbait bizi zela. Gainera, norbait hau herrian oso geizki ikusitako pertsona bat zen. Bere inguruko paisaia koloretsua ikusten zuen aina, pertsona hartaz ari zen pentsatzen. Nor izango zen? Zergaitik hitzegingo zuten horren geizki berataz? Eta, honela hitzegiteko, norbaitek ezagutu beharko zuen, hortaz inguru hauetan biziko zen. Pertsona misteriotsu hura ezagutzeko inoiz baino gogo handiagoa zeukan eta orain, bere bihotzak alaitasun apur bat sartzeko une txiki bat utzi zion.

Oso urrutian, zerbait nabarmentzen zen, zer ote? Ez zegoen zihur, baina etxetxo bat zelakoan zegoen. Denbora pasatzen zihoan eta ezinezkoa egiten zitzaion etxe haren ataria zapaltzea. Nahiz eta momentu haietan, itsuraz behintzat, etxea nahiko gertu egon, oraindik nahiko bide zeukan aurretik. Eguzkiren bihotzeko atetik alaitasun apur batek egin zuen ihes. Orain ere, bakarrik sentitzen zen, eta batzutan, aurpegi hartan malko isuri bat nabarmendu zitekeen. Bidearen erdian zegoen eta uste zuen, ez zuela merezi berriro atzera bueltatzea. Igerian ez zekien pertsona bat Ozeano erdian bezala sentitzen zen, baina bere ausardia hustiratuz, aurrera joatea erabaki zuen.

Bide bukaezin hartatik irtenda, beste toki batetik joatea erabaki zuen. Bide egokia hartu zuen eta beste apur batean oinetakoak higitu ondoren, etxe misteriotsu hartara iritsi zen. Bere gorputza beldurrez gainezka, eta bere arteriek ez zeramaten ohizko erritmoa. Atea irekita zegoen eta hots beldurti batez galdetu zuen:

—Ba al dago inor etxean?

Ez zuen inolako erantzunik jaso. Hamaikatxo aldiz jo zuen atea eta inolako erantzunik jaso gabe, barrura sartu zen.

Eguzkik etxe zahar bat ikus zezakeen aurrean. Zertxobait ikaratu zen, baina bere ikara hustiratuz, atea itxi eta etxe barneraino sartu zen. Ateari danbatekoa ematerakoan, horman zegoen zerbait erori zen eta Eguzkik izugarritzko deiadarra jaurtiki zuen.

Aurrera egiten zuen aina, bere eskutxoez, alde batetik bestera zeuden armiarma sareak kentzen zituen. Ez zirudien etxe hartan inor bizi zitekeenik. Baina hori pentsatzen zegoen bitartean, sutzar bat nabaritu zuen gelaren bukaeran dis-dis egiten. Eguzki ohartu zen bezala, agure bat sutzar ondoan zegoen. Agure hau egurrak sutzarrera botatzen zegoen.

Eguzkik berriro ere deiadar egin zuen eta agureak hau entzutean, sutzarrari bizkarra eman eta Eguzkiri begiratu zion. Agureak Eguzkiren urduritasuna nabarmentzean, esan zion:

—Lasai neskato. Ez dizut ezer egingo. Baina nor zara zu eta zer egiten duzu inguru hauetan bakar-bakarrik?

Eguzki zertxobait lasaitu zen eta dena esplikatu zion:

—Beno, —zioen agureak— eta hau dena entzun ondoren, zure izena jakitea atsegingo litzaidake.

—Egia da! —zioen Eguzkik bere hanka sartzaz ohartzera koan—. Nire izena Eguzki da. Eta zurea?

—Beno, egia esan ez dakit zein den nire izena, baina ezagutzen nauen jendeak Loti deitzen nau. Beno, zuri ez zaizu izen honen zergaitia interesatuko eta oso istorio tristea denez, nahia-go nuke gauza desberdin batetaz hitzegitea.

Bata besteari begira gelditu zen eta ixilune luze bat egon ondoren, Eguzki galdetzen hasi zen.

—Aizu Loti, zergaitik zaude okerturik? Zergaitik buru zuri?

—Zahartu naiz eta ahul nago. —Zioen Lotik.

—Zer dela eta ez du zure gorpuak bizitasunik?

—Bizitasunik? Nire gorpua erdi usteldurik dago. Zu egun sentia eta ni gaua naiz. Bihotzeko garra itzaltzen ari zait eta daukadan urteak gero eta gehiago pisatzen didate. Zerbait gehiago jakin nahi?

—Barkatu Loti, baina beste zerbait galdetu nahi nizuke. Nire aiton amonak hilik daude eta bost urte ditudanez, zenbait gauza ez ditut ulertzen. Zergaitik zaude bakarrik?

—Ardiak bezala nago, menditik inoiz ez dudanez alde egin,

Eguzkik ba zekien inguru haietan norbait bizi zela. Gainera, norbait hau herrian oso geizki ikusitako pertsona bat zen. Bere inguruko paisaia koloretsua ikusten zuen aina, pertsona hartaz ari zen pentsatzen. Nor izango zen? Zergaitik hitzegingo zuten horren geizki berataz? Eta, honela hitzegiteko, norbaitek ezagutu beharko zuen, hortaz inguru hauetan biziko zen. Pertsona misteriotsu hura ezagutzeko inoiz baino gogo handiagoa zeukan eta orain, bere bihotzak alaitasun apur bat sartzeko une txiki bat utzi zion.

Oso urrutian, zerbait nabarmentzen zen, zer ote? Ez zegoen zihur, baina etxetxo bat zelakoan zegoen. Denbora pasatzen zihoan eta ezinezkoa egiten zitzaion etxe haren ataria zapaltzea. Nahiz eta momentu haietan, itsuraz behintzat, etxea nahiko gertu egon, oraindik nahiko bide zeukan aurretik. Eguzkiren bihotzeko atetik alaitasun apur batek egin zuen ihes. Orain ere, bakarrik sentitzen zen, eta batzutan, aurpegi hartan malko isuri bat nabarmendu zitekeen. Bidearen erdian zegoen eta uste zuen, ez zuela merezi berriro atzera bueltatzea. Igerian ez zekien pertsona bat Ozeano erdian bezala sentitzen zen, baina bere ausardia hustiratuz, aurrera joatea erabaki zuen.

Bide bukaezin hartatik irtenda, beste toki batetik joatea erabaki zuen. Bide egokia hartu zuen eta beste apur batean oinetakoak higitu ondoren, etxe misteriotsu hartara iritsi zen. Bere gorputza beldurrez gainezka, eta bere arteriek ez zeramaten ohizko erritmoa. Atea irekita zegoen eta hots beldurti batez galdetu zuen:

—Ba al dago inor etxean?

Ez zuen inolako erantzunik jaso. Hamaikatxo aldiz jo zuen atea eta inolako erantzunik jaso gabe, barrura sartu zen.

Eguzkik etxe zahar bat ikus zezakeen aurrean. Zertxobait ikaratu zen, baina bere ikara hustiratuz, atea itxi eta etxe barneraino sartu zen. Ateari danbatekoa ematerakoan, horman zegoen zerbait erori zen eta Eguzkik izugarritzko deiadarra jaurtiki zuen.

Aurrera egiten zuen aina, bere eskutxoez, alde batetik bestera zeuden armiarma sareak kentzen zituen. Ez zirudien etxe hartan inor bizi zitekeenik. Baina hori pentsatzen zegoen bitartean, sutzar bat nabaritu zuen gelaren bukaeran dis-dis egiten. Eguzki ohartu zen bezala, agure bat sutzar ondoan zegoen. Agure hau egurrak sutzarrera botatzen zegoen.

Eguzkik berriro ere deiadar egin zuen eta agureak hau entzutean, sutzarrari bizkarra eman eta Eguzkiri begiratu zion. Agureak Eguzkiren urduritasuna nabarmentzean, esan zion:

—Lasai neskato. Ez dizut ezer egingo. Baina nor zara zu eta zer egiten duzu inguru hauetan bakar-bakarrik?

Eguzki zertxobait lasaitu zen eta dena esplikatu zion:

—Beno, —zioen agureak— eta hau dena entzun ondoren, zure izena jakitea atsegingo litzaidake.

—Egia da! —zioen Eguzkik bere hanka sartzeaz ohartzera koan—. Nire izena Eguzki da. Eta zurea?

—Beno, egia esan ez dakit zein den nire izena, baina ezagutzen nauen jendeak Loti deitzen nau. Beno, zuri ez zaizu izen honen zergaitia interesatuko eta oso istorio tristea denez, nahia-go nuke gauza desberdin batetaz hitzegitea.

Bata besteari begira gelditu zen eta ixilune luze bat egon ondoren, Eguzki galdetzen hasi zen.

—Aizu Loti, zergaitik zaude okerturik? Zergaitik buru zuri?

—Zahartu naiz eta ahul nago. —Zioen Lotik.

—Zer dela eta ez du zure gorpuak bizitasunik?

—Bizitasunik? Nire gorpua erdi usteldurik dago. Zu egun sentia eta ni gaua naiz. Bihotzeko garra itzaltzen ari zait eta daukadan urteak gero eta gehiago pisatzen didate. Zerbait gehiago jakin nahi?

—Barkatu Loti, baina beste zerbait galdetu nahi nizuke. Nire aiton amonak hilik daude eta bost urte ditudanez, zenbait gauza ez ditut ulertzen. Zergaitik zaude bakarrik?

—Ardiak bezala nago, menditik inoiz ez dudanez alde egin,

ez dut beste ezer ezagutzen. Hementxe ditut nik makina bat oroipen. Gainera, herriko zenbait jendek ezin nau ikusi ere egin, eta okerrena zera da, ez dakidala honen arrazoia.

Lotiri malkoak irtetzen zitzaizkion, eta malko haiek tristura handi bat garraiatzen zuten aurpegi ximurtuaren barrena.

Hamabi t'erdiak ari ziren jotzen Eguzki Lotiren etxetik irten zenean. Agur egiteko ordua iritsi zen. Baina Eguzkiri ezinezkoa egiten zitzaion horren azkar aldentzea eta esan zuen:

—Beno Loti, etxera berandu itzuli ezkerok amatxok ipurdia gorri-gorri eginda utziko dit. Hortaz, bidea aurkitu ezkerok, etxera itzuliko naiz. Bidean ez dut jarri inolako arrastorik berriro etxera itzultzeko eta...

—Bai, bai! Ulertzen zaitut. Ai, ai, ai! Oraingo haur hauek zeharo... Beno, goazen lehen bait lehen zure etxerantz. Neronek lagunduko zaitut beheraino. Ados?

—Egia? Ba oso ongi! Goazen ba! —zioen Eguzkik pozaren pozez brikoka zebilen bitartean.

Jasan ezinik, Eguzkik Loti besarkatu eta muxu handi bat eman zion, eta behera heltzean, esan zuen Lotik:

—Beno ba, gauza on guztiak bezala, honi ere bukaera azkar bat iritsi zaio eta orain, bakoitza bere habiarantz abiatzeko ordua heldu da.

—Aizu Loti! Ideia zoragarri bat bururatu zait. Zergaitik ez zatoz gure etxera bazkaltzera?

—Ni? Zure etxera bazkaltzera? Oso gustora joango nintzateke, baina zure gurasoak...

—Ixo! —esan zuen Eguzkik Lotiri hitzegiten utzi gabe— Hori ez da arrazoi egoki bat. Nire gurasoak tipo jatorrak dira eta ez lidakete inoiz inolako eragospenik jarriko, gainera orain nire ama bakarrik dago etxean.

—Bai? Uste duzu hori horrela dela? Beno, ba hala bada joango naiz. Baina badakizu herri hontan oso jende jarduntzailea dagoela.

Eguzkik, Loti eskutik heldu eta bere etxeraino joan ziren bata bestea baino urduriago.

Txirrina jo eta amak atea irekitzerakoan esan zuen:

—Kaixo bihotza! Zer moduz? Ez al diozu amatxori muxu bat eman behar?

—Bai amatxo, —esan zuen Lotik— baina lehenengo nire lagun bat aurkeztu nahi dizut.

—Ea ba, nor da zure lagun misteriotso hori? —zioen amak.

—Mugi Loti! Hemen ez dago inolako zakur goseturik.

Amak Loti ikustean, sekulako zirrara sartu zitzaion.

—Baina Loti, nola ausartzen zara? Ez al da hau...

—Bai ama, —zioen Eguzkik— bera da. Eta zer? Akaso ezagutzen al duzu Loti berari buruz iritzi bat emateko?

—Ez baina diotenez...

—Herriko edozein pertsonagaitik edozer gauza esaten dute, baina zuk diozun bezala, pertsona hauek esaten dituzten gauzei ez zaie garrantzirik eman behar. Eta orain, esan behar dizut Lotik hemen pasa behar duela eguna zuk onartu edo ez. Arin Loti sar zaitez beldurrik gabe!

Bazkaltzeko ordua iritsi zenean, eta hirurak mahaian elkartzean amak dena entzutea erabaki zuen. Lotiren hitzek unkiturik utzi zituen Eguzki eta ama. Amak esanahi sakon hura zeukaten hitz haiek entzun ondoren, Lotirengan zeukan ikuspegia guztiz aldatu zuen.

—Ama, —zioen Eguzkik— ohartzen al zara nola herriko jendeak ez daukan arrazoirik?

—Bai, eta horregaitik barkamena eskatzen dizut. —Esan zion amak Lotiri burua makurtuz.

—Ama, eta Lotiren bizitza mixerable hau entzutean, galdera honen erantzun bat entzutea gustatuko litzaidake: Gera al dai-teke Loti etxean bizitzen? Berak aitonaren lekua beteko du eta nire denbora libreak berarekin pasatuko ditut. Gainera, horrela ez dut inoiz gehiago nire zaintzaile gogaigarri hori ikusi behar-

ko.

Loti guztiz harrituta gelditu zen Eguzkiren hitzekin. Lehenengo behera jeisten laguntzeko eskatu zion, ondoren bazkaltera gonbidatu zuen eta eguna bertan pasatzearena onartu ondoren, bertan bizitzeko aukera eman zion. Baina harridura haren aurrean hoberena ixiltzea zela pentsatu zuen Lotik.

Ama pentsati zegoen. Arazo nahiko serio bat zeukan eta irtenbide bakar bat. Loti etxean onartzea pentsatu zuen.

Hurrengo astean aita etxera itzuli zen. Ongietorria eman bezain laister, amak denaren berri eman zion. Aita oso bihotz zabala zen eta Lotiri egoera hartan ustea ezinezkoa egiten zitzaionez, baietza eman zuen. Bien erantzuna baiezkorra izan zenez, Loti etxean gelditu zen. Eguzkik izugarritzko poza hartu zuen eta ez dezagun aipatu ere egin Lotik sentitzen zuen poza. Munduko pertsonarik zorionsuenak ziren.

Haseran, Lotiri bizimodu hartan murgiltzea asko kostatu arren, ongi azkar moldatu zen. Dagoeneko herriko jendea ohitu zen Loti ikustera eta baita ere, herritar asko bere lagun izatera iritsi ziren. Orain, Lotitaz gauza baikorrak besterik ez ziren entzuten herrian. Baina Loti ere heldu zen bere bizitzaren azken mugara eta mundu guztiak bezala, honek ere itxi zituen begiak betirako.



Asier Orbea
O.H.O mailan 3. Saria

Choki eta ni

Argiak itzuli ziren eta harritu indurera hitzegin egiten zidala izan zen. Bere izena Choki zela esan zidan, beste hurralde zagarri bezain dibortagarria zen lurraldeitik zetorrela, baina oso urrutiko zegoela eta laguntza behar zuelako ez zela hain ederra

Choki eta ni

Ni hamabi urte ditudan mutil bat naiz, oso normala, gutxienez besteak bezalakoa, eta niri gertatu zaidana kontatuko dizuet.

Herri txiki baten bizi naiz, txikia bezain aspergarria. Herrian, egia esan, ez bait da ezer berezirik gertatzen. Herria, zikina, zatarra eta nazkagarria iruditzen zitzaidan eta irudituko litzaidake, gertatu zena gertatu ez balitz. Honela hasten da nire istorio bitxia:

Neguko gau hotz horietako batean gertatu zen. Nire gurasoak nire anaiarekin batera, makina bat urte joanak ez zirela eta, zinera joatea erabaki zuten eta pelikula hori politikarien hitzaldiak baino aspergarriagoa zenez, etxean gelditzea pentsatu nuen lasai lasai.

Telebista ikusten nengoela... Konturatuko zineten gauz guztiak aspergarriak iruditzen zaizkidala, beraz, telebistan zegoena ere ez zitzaidan gustatzen. Beno, lasai nengoela esaten ari nintzen. Bapatean, Brummm! entzun zen. Trumoia izan zen hasieran, gauza txarrago bat zela pentsatu banuen ere. Argi guztiak itzali ziren eta zarata bat entzun zen. Norbait sartu zen ni nengoan gelan eta ez nuen nor zen ikusten. Tentsioa topetara igo zitzaidan eta ileak puntan jarri. Hurbiltzen zihuan, bere pausoak entzuten bait nituen. Ez nuen ezer ikus... Izugarria zen!, monstruo bat zen, bere begi disdiratsuek min ematen zidaten begietan, baina bera gehien ezberdintzen zuena buru gainean zuen aleta antzerakoa zen. Tamainuz metro bat ingurukoa izango zen eta pisuz 12 bat kilo. Lasaitu ninduena zera izan zen; ez zidala ezer egin nahi eta beste lurralde batetako zela.

Argiak itzuli ziren eta harritu ninduena hitzegin egin zidala izan zen. Bere izena Choki zela esan zidan, beste lurralde zoragarri bezain dibertigarria zen lurraldetik zetorrela, baina oso urruti zegoela eta laguntza behar zutela; ez zela hain ederra

izango zerbait egiten ez bazuten. Berak bakarrik bere espaziountzian lurrera ailegatu ahal izan zuela. Esan zidan, bere planeta salbatuko zuen bola miragarria han bakarrik zegoela. Nik nolatan hitzegiten zuen nire hizkuntza galdetu nion eta berak, beraiek gu baino adimentsuagoak zirela erantzun zidan. Berriro ere ea lagunduko nion esan zidan. Nik, erabat lasaturik ez oraindik, baietz esan nion, ea noiz hasiko ginen bolaren bila eta ea magiarik egiten zuen. Berak baietz esan zidan. Nik ezin nuen sinestu. Berehala hasi behar ginen bolaren bila, ez bait zegoen denborarik alferrik galtzeko eta oraindik magia asko eduki arren ez zekiela nondik zegoen bola eta. Lurrean zegoen agure zahar bati galdetu behar geniola, Chinan bizi zena berau eta oso argia. Baita zazpi egun genituela ere esan zidan bola miragarria bere planetara eramateko. Nik esan nion oso urruti geundela Chinatik eta ez zigula denborarik emango gure helburua lortzeko, baina berak botereak zituela esan zidala ahaztu zitzaidala zirudiela esan zuen.

Abiatu ginen bere espaziountzian. Hala ere arazo bat zegoen. Kontatu zidan bere planetan ere petroleoa erabiltzen zutela espaziountzietan eta Arabia Chinako bidean harrapatzen genuenez, gelditzea erabaki genuen.

Gelditu ginen beraz Arabian, baina inork ez zuen ezer sumatu behar espazioko gizontxo bat gure planetatik zehar zebilela, beraz, ideia zoragarri bat eduki nuen. Txikia zenez, ume txikiz mozorrotzea pentsatu nuen, berari eskatu nion kotxesila eta ume txiki baten jantziak eta Chokik bere magia erabiliz segituan atera zituen. Jadanik jantzia eta kotxesilan zegoela, ume txiki bat bezain ponpoxa zirudien.

Ondoren egin nuen pausoa han ugari dagoen petroleo putzu bat topatzea izan zen. Gero hura zegoen tokira joateko ez zitzaidan asko kostatu eta topatu eta gero, inork ikusi gabe, Chokik putzutik petroleoa atera eta espaziountzia zegoen tokiraino hegan bidali zuen. Hau egin eta gero berriz ere bidaiari ekin genion.

Azkenik ailegatu ginen Chinara. Segituan, Arabiako gelditua kontatu gabe, Chokiren espaziountzia sinestu ezineko abiadura hartzen zuenezkero, hamabost minututan egin genuen bidaia. Chinan, Chokik, chinera hitzegiteko era izan nezan bere magia erabili zuen, jendeari agureari buruz galdegiteko. Azkenean, zerbait jakin ondoren, agurea ia lehenengo saiaketan bilatu genuen, baina bigarrenengoan bai aurkitu genuen. Bere etxean sartu ginenean ez zen batere harritu Choki ikusteaz, bazirudien lehendik ikusita zuela horrelakorik. Chokiri nik hau esatean, esan zidan agurea beraien planetan izana zela eta bere aitaren lagun haundia izan zela Chokiren aita hil zen arte, orduan etorri zelarik agurea berriro lurrera.

Agureak ez zigun zer nahi genuen esateko astirik eman, jadanik bazekien zer galdera egin behar genion eta. Chinatik beste puntan zegoela esan zigun, Ameriketara...

Denborarik galdu gabe, agurea bilatzen egun oso bat egina bait geneukan, Ameriketara abiatu ginen bola miragarriaren bila.

Nire kezka Ameriketara izango genuen arazoa zen, agureak esan bait zigun basoan zegoela, eta Ameriketako basoetan basapiztia ikaragarriak daude gu erasotzeko prest. Hala ere Choki ondoan izango nuela jakinda lasaiago nengoen. Baina heldu ginenean, nire susmoak egi bihurtu ziren. Ameriketako gauak bezain ilunak ziren basoetan, basapiztia ugar zegoen eta erne ibili behar nuen Chokirengandik ez urruntzen, berak botereak bait zituen animaliek ezer ez egiteko moduan.

Bilatu eta bilatu Amerika osoko makina leku pasatu ondoren, bola miragarria bilatu genuen, baina bi egun genituen Chokiren planetara joateko, justu bidaia hori egiteko behar diren egunak.

Segituan atera ginen. Izugarria zen espazioa, inoiz ez bait nuen ikusi. Ailegatu ginenean Chokiren planetara ordu bat falta zen bola bere tokian uzteko eta dena salbatzeko. Lortu genuen.

Han nengoen, Chokik nola bizi ziren kontatu zidan, eta

izugarri gustatu zitzaidanez planeta hura, han gelditza erabaki nuen. Baina kondizio batekin; nire gurasoak ekartzen bazituzten.

Hala egin zuenez han gelditu ginen jolasten eta orain hemen bizi naiz oso pozik.



Bingen Sasiain Sesma
Ertaineko mailan 1. Saria

Lauterdi

Egun osoa negurako belarra metatzen eman zuten. Aspakildanik zuten belarra moztas eta lehortzen jarria. Bascenaren atzekaldean, basoaren bukatzeran zegoen zelai batean moztu zuten belarra. Bere aitona ezan zionez, honen aita bizi zenetik zuten belardi hura bere sendiarena. Ez zuten belar askorik belar emaztea hil zitzaizun egun hartanik — «Madarikazia, zergatik ez zaizkizun galduta berarekin eraman?» — ez bait zuten belar bakar bat beretik, berarentzat ezin lortzeko nahikoa.



Lauterdi

Sagardoa egin berri zuten. Urtero bezala iloba etorri zitzaion sagarrak biltzen laguntzera, eta bi asteren buruan sagardo botila orlegi dizdiratsuz betea zuen ganbara.

Sagardoa egitea zen urteko gauzarik pozgarriena beretzat. Beno, pozgarriena ez, Eguberritan semea, haren emaztea eta bilobatxoak joaten zitzaizkionean pozez zorutzen egoten bait zen. Baina, horretaz aparte, emaztea hil zitzaion egun mingarritik aurrera bakar bakarrik bizi zen izatez bakartia zen baserrian. Baserria pagoz inguratua zegoen alde guztietatik, hauek eguzkiaren argia filtratzen zutelarik. Pagoen azpian ez zegoen sargoririk udan, itzala eta freskura baizik. Pagoen azpian goroldioa hazten zen, tapiz batek bezala dena estaliz. Automobil bat juxtu juxutan pasatzeko modukoa zen bidexkak eteten zuen tapiz hau, norbaitek artzai batzuz moztu izan balu bezala.

Urtero bezala, sagarrak eta sagardoarekin batera, negua batorrela adierazten duen mentsaiaria heldu zen: udazkean. Lur guztia hosto zimelduz bete zen, tapizari kolore berria emanaz. Lehen orlegia eta bizitasuna zen guztia tristetzen, oritzen ari zen. Zerua ere, beti urdina egoteaz aspertu izan balitz bezala, egu-netik egunera laino gehiagoz estalia ageri zen. Eguzkiak ere laister galdu zuen iluntasunarekin borroka, eta egu-netik egunera lehenago ematen zion boterea gauari, ilunari.

Egun osoa negurako belarra metatzen eman zuen. Aspaldidanik zuen belarra moztua eta lehortzen jarria. Baserriaren atzekaldean, basoaren bukaeran zegoen zelai batean mozten zuen belarra. Bere aitonak esan zionez, honen aita bizi zenetik zen belardi hura bere sendiarena. Ez zuen belar askorik behar, emaztea hil zitzaion egun hartatik —«Madarikazioa, zergatik ez ote nau Jainkoak edo deabruak berarekin eraman!»— ez bait zuen behi bakar bat besterik, berarentzat esnea lortzeko nahikoa.

Halere, zelaitik etxaldera belarra eramatea eta metatzea gero eta zailagoa, neketsuagoa egiten zitzaion. «Urteek ez dute bar-katzen» esaten zion bere buruari «eta hik asko baino gehiago daramatzak bizkarrean kargaturik». Bera jaio zenean jaiodata zehazki gordetzen ez zela eta, ez zekien zehazki zenbat urte zituen. Hirurogeitamabost baino gutxiago zituela Jainkoak be-rak esango balio, ez lioke sinetsiko, urteen zama hezur bakoi-tzean, muskulo bakoitzean somatzen bait zuen. Ikusmena ordea, ez zitzaion lausotu, eta gaztetan bezain zorrotzak zituen begi marroi dizdiratsuak.

Begi hauek ziren bere aurpegian gaztetasunaren arrasto ba-karra. Gainontzekoak, ordea urteen lana erakusten zuen; zimu-rrerz beterik zeukan aurpegia, zimur sakonak, egunetik egunera sakonagoak. Azala bera ere latza eta gogorra zen, eguzkipean pasaturiko lanordu luzeen eraginez. Zeukan ile gutxia aspaldi-danik elurra, urtero mendi eta zelaiak zuritzen zituen elurra, bezain zuria zen.

Esan bezala, ordu luzeak pasatu zituen belarra metatzen, eta lan hau bukatzerako izugarri nekatua aurkitu zuen bere burua. «Nork asmatu ote dik nekea. Ziur egon hadi tristura eta samina munduan sartu duen berdina dela», zioen; konturatzen bait zen gero eta zaharragoa, ahulagoa zegoela. Bere bizi osoa lanean eman ondoren, ezin zen urteen indarraren aurrean makurtu, ezin zuen amore eman. zenbat aldiz eskatu ote zion semeak berarekin bizitzera joateko, eta zenbat bider eman ote zion berak erantzun berdina, ezezkoa. Gogora etorri zitzaion eduki zuten azken el-karrizketa:

—Aita, badakit beti berdinarekin ibiltzen naizela, eta ez du-zula gustokoa honetaz hitzegitea, baina ama hil zenetik bakar bakarrik bizi zara hemen, lanean jarraituz. Badakit zuretzat zoriontasuna beti hemen egon dela, baina bada garaia falta zaiz-kizun urteak beste era batetara bizitzen hasteko.

—Bazekiat hik nahi deken bakarria nere zoriontasuna dekela,

baina konturatu behar haiz ni hemen gustora bizi naukela, etxea hemen zeukeatela, etaez beste edonon.

—Badakit aita, baina zergatik ez zara gurekin bizitzera etor-zen? —semeak—. Emazteak eta biok gustora hartuko zintuz-kegu etxean, eta astero aste bukaera hemen igarotzera etorriko ginake.

—Sentitzen diat, baina ez zegok ezer berririk horri buruz. Hemen niagok eta hemen egongo nauk Jainkoak edo deabruak, berdin zait, nireak egin duela erabaki arte.

—Pentsa ezazu ongi, aita.

—Aspaldidanik erabakia zegok. Halere, milaesker.

Bazekien semeak honetara iritsiz gero ez zegoela zereginik. Eta bere bihotzaren sakonean poztu egiten zen, aitarengan gizon sendoa ikusten bait zuen. Eta Jainkoari edo deabruari —esaera hori aitarengandik ikasia zuen— eskatzen zion berak ere egunen batean horrela jokatzeko adorea edukitzea.

«Semea ez bait dek konturatzen zer eskatzen ari zaidan». —Hasi zen berriz ere berdinari buruan birak emanaz, hainbeste aldiz ehotutako alea berriz ehotzen— «Ni joan izan nauk bera bizi dan hiri horretara, egin diat lo bere etxe horretan. Han zarata eta presa besterik ez zegok. Automobilak alde batetik bestera, kea, zalaparta. Hor ezzegok bizitzerik! Eta goizean jaikitzea-koan? Leihotik begiratu eta pagoak eta mendiak ikusi beharrean ondoko bloke grisa besterik ez nian ikusi! Eguzkia ere etxe baten atzean ezkutatua zegoen! Ez, ez, milaesker. Burugogorra izango nauk, baina ni hemen geratuko nauk!» —eta pentsamentu hauek burutik pasatzen zitzaizkion bitartean sua piztu zuen pagoen azpianjasotako zotz batzurekin. Nahiko hezeak zeuden, eta de-xente kostatu zitzaion hauek piztea.

Sutan afaltzeko babarrunak eta odolkia berotu, afaldu eta ohea joateko prestatu zen. Irratia berarekin eraman zuen, zaila egiten bait zitzaion lo hartzea. Logurarik ez zuenean, edo eta logura eduki eta gogoetek lo egiten uzten ez ziotenean, irratia pizten

zuen.

«Escucharemos ahora la octava sinfonía de Beethoven...» gurriltxoak jiratu eta «Alustiza nagusitu da gaurko partiduan...», irratia ixiltasun mingarria garaitzeko, estaltzeko aitzakia berririk ez zen izaten. Ezergutxi ajola zitzaion orain pelota, eta hare gutxiago Beethoven-en sinfonia, bere doinu goibelez bihotza oraindik gehiago tristetzen bait zion.

Nolabait ordu luzeak igaro ziren, eta eguzkiaren lehen izpiek berriz ere, egunero bezala, iluntasuna gaintu zuten. Lehen izpi hauek pagoen artean pasatuaz iristen ziren baserriko hormeara, kare zuria toki batzutan besteetan baino txuriagoa bihurtuaz.

Ohetik jaiki eta leihoa ireki zuen. Ikusi zuenak bihotza poztu zion: pagoen artean filtratzen ziren eguzki izpiek kolore jokoak egiten zituzten, zuhaitzen enbor eta hostoei bizitza emanaz, itzal mugikorrek sortuaz. Eta harutzago, zuhaitzen atzean, zelai zabalak eta mendi tontorrek ikusten zituen, laister elurak zurituta egongo zirenak. Han zeuden, eta bereak ziren. Betidanik berea bezala hartu zuen edertasun guzti hura, bere bihotzaren parte bat bezala. Eta ez zion inork kenduko, heriotzak bakarrik. Ez zion beldurrik heriotzari. Beste bizitza bat bazegoen, han aurkituko zuen emaztea. Eta bestela, heriotzaren ondoren iluntasuna eta ezereza berririk ez bazegoen, berdin zitzaion. Bizitza mundutarra ez zen bizitza berarentzat emaztea hil zitzaionetik; bihotzaren erdia joan zitzaion berarekin, eta beste erdia mendi eta zelaietan zehar sakabanatua, ereinda zuen. Haiek ziren orain bakartasun latza xamurtzen ziotenak, aspaldiko egun zoriontsuen oroimena ekartzen ziotenak.

Behoko solairura jetxi zen. Behiari belar pizka bat eman, eta animaliak jaten zuen bitartean hau jaisteari ekin zion. Jaisten ari zen bitartean, behi hura jaio zeneko gaua etorri zitzaion gogora. Gau guztia eman zuten zekorra jaio zedin zain, eta hau ateratzerakoan ama hilik suertatu zen. «Bat hil eta bestea jaio. Legezkoa ematen dik, baina...»

Esnea egosi eta ez kaferik ez eta azukrerik bota gabe edan zuen. Betidanik ohitura hori zuen, bere ustez esnea bakarrik edaten denean bakarrik bait da esne.

Goiz osoan zereginik ez zuela eta, baso eta zelaietan zehar paseatzera joan zen. Pagoen artean lehenik, hosto zimelak zapalduaz, hauek egiten zuten zarata goizeko ixiltasunean alde guztietara hedatzen zelarik. Basoko itzaletik zelai zabalera irten zenean, eguzkiaren argiak begiak mindu zizkion instant batez, baina segituan ohitu zitzaizkion argitasun hartara. Bi pauso eman zituen, eta hirugarrena ematera zihoanean, ikusmena lainotu, oreka galdu eta lurrera erori zen. Oraindik gaueko ihintzak bustita zegoen belarraren gainean gelditu zen etzanda, hilik bezala.

Eta han gelditu zen perretxiko biltzaile betek aurkitu zuen arte. Honek hospitalera ahal zuen azkarren deitu zuen, eta handik denbora gutxira anbulantzia bat argi guztiak pizturik zituela ziztu bizian zihoan hospitalerantza. Denbora guzti honetan konorterik gabe egon zen, bere inguruan gertatzen ari zenaz konturatu gabe. Behin bakarrik iriki zuen begi bat, eta ikusi zuen bakarra «lasai, lasai» esaten zion aurpegi gazte bat izan zen.

Bitartean, norbaitek semeari telefonoz deitu zion, eta hau anbulantzia iritsi orduko hospitalean zain zegoen. Anbulantzia-tik aita atera zutenean konturatu zen aitarenak egin zuela.

403. gela.

«Ixiltasuna, mesedez»

«Ez erre»

Begi irekiak sabaira begira zituela zetzan ohe zurian. Semea aulki batean exerita zegoen, ohearen eskuinaldean. Bere atzean leiho handi batek zeru grisak ematen zuen argi gutxia gelara barneratzen zuen. Argi honek gela barneko giro hitsa oriandik gehiago goibeltzen zuen.

Begiak irekita zeuzkan, bai, baina ez zuen ezer ikusten. Ez zekien non zegoen, zergatik zegoen han edo eta nor ziren mo-

mentu batetik bestera bere inguruan mugitzen ziren jantzi zuri-
dun haiek.

Noizbehinka argitasun pizka bat somatzen zuen bere buruan zebilen zurrunbilo hura zerbait baretzean, baina laister egoera berdinerara bueltatzen zen. Hauetako barealdi batean hitzegiten saiatu zen, baina ezinezkoa gertatu zitzaion. Bere ezpainetatik zurrumurru bat besterik ez zen irten. Semea irakurtzen ari zen egunkaria lurrera bota eta aitarengana gerturatu zen «zer diozu, zer nahi duzu?» esanaz. Baina ordurako aita berriz ere zurrunbiloan murgildurik zegoen. Zurrunbilo honetan bere bizitzako gertakarien irudiak pilatzen ziren inongo ordenarik gabe. Umetan pago batetik erorita besoa apurtu zuenekoak, emaztearen heriotza, ezkondu zirenekoa, semearen jaiotza... eta batez ere, azken urteetan bizi izan zuen bakardadea. Gau luzeetako ixiltasuna, ordu luzeak mendiei begira ematea... eta askotan, heriotzak berarekin eraman zezan eskatzea. Heriotza... eta askotan, heriotzak berarekin eraman zezan eskatzea. Heriotza... Hilik ote zegoen? Eta, bizirik bazegoen, zergatik ezin zen mugitu? Zergatik ezin zuen hitz bat bera ere esan? Zergatik ez zuen marmar bat besterik entzuten? Zergatik zeukan iksumena lausotua? «Gogoratzen al haiz gehiegi edan huen egun hartaz, bai, orduan ere ikusmena lausotu zitzaian, baina orain ez duk ezer edan, edo bai, ez nauk ezertaz gogoratzen...» eta berriz ere zurrunbiloa.


Egunak aurrera zihoazen, eta denak berdin jarraitzen zuen. Noizbehinka zerbait esaten saiatzen zen, baina segituan amore ematen zuen, konturatzen bait zen ez ziola inork ezer ulertzen.

Ia beti ondoan zeukan hura semea zela konturatu zen, eta behin entzuten zuen marmarretik zerbait ulertzen zuela iruditu zitzaion: «laster etxean egongo zara» edo horrelako zerbait. «Etxera. Bai. Emaztea zain edukiko dut. Ez. Emaztea hil zen. Orain bakarrik nago.

Ez. Bakarrik ez. Semea daukat. Ez. Hiriak semea kendu dit. Gorroto haut, hiria». Behin eta berriz zurrunbiloaren iluntasu-

nean murgiltzeko.

Heriotzaren iritsiera baino pizka bat lehenago gaixoak mejora txiki bat edukitzen duela diote batzuk, eta hau dela dama beltza badatorrenaren zeinua. Berak ez zuen horrelakorik eduki. Bapatean, egun argiarekin batera hil zen, ezpainetan irriparre bat zuelarik. Bere mendi eta zelai, pago eta pinu, eguzki eta zeruari buruz pentsatzen ari bait zen heriotzak berarekin eraman zue-
nean.



Iban Barrenetxea
Ertaineko mailan 2. Saria

Eta koblakaria triste zegoen



Iban Barrenetxea
Ezaineko mailan 2. Saria

Eta koblakaria triste zegoen

Eta koblakaria triste zegoen

Toki guztietatik udazken goizeko haize freskuarekin batera eroritako hostoak zeuden. Koblakaria eskuarekin begiak igurtzi eta poliki poliki zabaltzen saiatu zen, baina zuhaitzen artetik jario zuten eguzki izpiek, orratzak bezala ziztatzen zuten. Esku batez aurpegia estali zuen, zegoen argitasun handira egin zen arte, orduan bere ingurura begiratu zuen, zuhaitzaren enborrean euskarriturik zegoen bastoi luzea hartu eta bere laguntzaz jeiki egin zen. Lurretik kapa marroi bat jaso eta astindu egin zuen, itsatsirik zituen hostoak eta zomorroak kentzeko, kontu handiz bildu eta narruzko poltsa batean gorde ondoren bere gauza guztiak jaso eta ibiltzen hasi zen. Laster basoa utzi eta bideska batetaraino iritxi zen.

Koblakaria triste zegoen. Bazekien bere ahotsa ez zela lehen zuena bezain ederra, eta bere lautaren sokak ez zeudela aintzinan bezain ongi afinaturik... bazekien bere kantika, kondaira eta poemak ez zirela jendearentzat lehen bezain atseginak, eta Koblakaria triste zegoen. Lehen pozez eta algaraz ongietorria ematen zioten herri berberetatik, orain burla eta txistu eginez agurtzen zuten. Non gelditu ziren aintzinako denborak... zilarrrezko armaduradun zaldunak zaldi zuri ederren gainean abentura bila irtetzen ziren urte gloriagarriak... seguraski azkenengo dragoiarekin batera hil ziren amets eta lilurazko garaiak, seguraski denboraren mamuak ezkutatu zituen, eta bakarrik Koblakaria bezalako erromantiko zahar batzuen gogoan bizi ziren, amaraunez beteriko putzu beltz batean, ahazturik, bazterturik, irtenbiderik gabe... eta Koblakaria triste zegoen...

Hiru ordutan zehar ibili ondoren, nekatua egarriz eta gosez, bideskatikatik irten beharra izan zuen zuhaitz baten itzalean esertzeko. Koblakaria ikusiko zuen edonork, bizkarretik zintzilik zeraman lautarengatik ez balitz, erromes behartsu batekin

nahasiko luke. Bere itxura benetan penagarria zen.

Poltsatxo batetik ogi pusketa bat atera eta berarekin gosea asetu zuen, baina bere zahagitik ura edateko asmoz zegoenean, hau hutsik zegoela konturatu zen. Koblakaria lurretik altzatu eta ingurura begiratu zuen, ea errekatxoren bat ikusten zuen, baina ezer. Momentu hartan bide aurretik zetorren zalgurdi baten zarata entzun ahal izan zuen.

Pauso batzu eman eta bidearen erdian gelditu zen gurdia- ren zain. Hau denbora gutxi barru agertu zen bere aurrean. Gurdia- ren barruan emakume lodi bat eta bere alabatxoa zihoazen. Zaldia- ren bridetatik tiraka, nekazari itxurako berrogei bat ur- tetako gizon argal bat gurdia gidatzen, zeren eta hau osta osta sartzen zen bideskan. Orduan Koblakaria beregana zuzendu zen:

—Kaixo nekazari jauna... —esan zuen erreberentzia bat egi- nez.

—Zer nahi duk ijito? Ez daukagu limosnatarako dirurik!

—Nik ez dut zuen dirua nahi, gainera Koblakaria naiz, ez ijitoa.

—Tira, tira! —oihukatu zuen andreak gurditik— Zer des- berdintasun dago? Kendu bide erditik edo bide gainetik pasako gaituk!

—Zein da gizon hori ama? Zein da? —galdetu zuen alaba- txoak bere amaren gonatik tira eginaz.

—Inor ere ez, ijito bat bezterik ez da.

—Ongi da... —esan zuen Koblakariak haserreari eutsiz— Zuek nahi duzuen naiz, baina mesedez, emango al zenidakete ur piska bat?

—Zer? —erantzun zion gizonak—. Zer pentsatzen duzu? Dirurik ba al duzu?

—Baina...

—Ze baina ta ze... Ez badago dirurik... ezta urik ere! Zer gertatuko litzateke zuri eman eta gero ur horren beharra edukiko bagenu? Ez dago itorri bat berrogeitamar kilometrotan.

—Baina nik ez dut dirurik... eta egarri naiz...

—Dirurik ez... baina zure bizkarrean daramazun laut horrek... ziur diru asko balio duela. Horren truke ura emango dizut!

—Hori ez mesedez, nahi duzuna eskatu... baina hori ez! Lau- tik gabe, gosez hilko nintzateke...

—Bestela ere, egarriz hilko zara! Zuk aukeratu!

Koblakariak ezin zuen gehiago jasan gizon nazkagarri hark esaten zuena, eta eztanda egin zuen...

—Deabru nazkagarriak! —esan zuen— Ze pertsona mota zarete? Nola ezezta diezaiokezue ura egarriz dagoen bati? Di- ruaren truke bai... eta urik gabe gelditzen bazarete, zer egingo duzue, dirua edan? Pertsona bat naiz! Ijito edo ez ijito, Koblakari edo ez Koblakari, pertsona bat naiz!

—Zu ez zara pertsona, zahar txotxolo hori! —hau esanez ba- tera, nekazariak Koblakaria bultzatu eta bidetik kanpo bota zuen. Gurdia urruntzen hasi zen, eta gizonaren eta bere emaz- tearen barreak entzun ahal izan zituen, eta baita alabatxoaren ahotsa ere: «Zergatik ez da pertsona ama? Zergatik?»

Gurdia urrutiegi zegoen erantzuna entzun ahal izateko, baina ba ote zuten galdera horrentzako erantzunik? Hura zen esperan- tzarik gabeko mundua... ilusiorik gabeko mundua... gizatasunik gabeko mundua... eta Koblakaria triste zegoen...

Lehen, bi bidaiari elkartzen zirenean, elkarren artean dena banatzen zuten; zaldunak edo erromesak, denak elkarrekin su- tondoan, janariak, edariak eta historioak konpartituz. Ezezagu- nak lagunik hoberenak bihurtzen ziren. Jendea beti zegoen, bihotz zabalez, bestearen zori eta zoritxarrak entzuteko prest, eta batez ere batak besteari bere ametsa kontatzeko prest. Orain hain urruti ziruditen garai haietan, pertsona bakoitzak amets batu zuen, beraien bizitzan besteak baino indartsuagoa zen helburu bat. Bat zuen ametsa gloriatzkoa zen, beste batzuena maitasu- nezkoa, eta askorena ahalezinezko ametsa. Baina horrek ez zuen ajolarik. Margolarien, historiako obrarik ederrena egiteko ame-

tsak, artelan ikaragarriak sortarazi zituen; olerkariak bihotzik gogorrenak hunkituko lituzketen amodiozko bertsoak egin zituzten, bai zerk hunkituko lituzke nekazaria eta bere emaztea bezalako pertsonak?

Koblakariak, noski, bere ametsa zuen, amets ahalezinezko bat.

Han zegoen Koblakaria, bide hertzean, neke neke eginda, egarriz. Bere gauzak jaso eta ibiltzen hasi zen, eta nahiz eta ahoa sikua eduki bere lauta hartu eta kantatzen hasi zen. Eta inork ez zuen inoiz, hura bezain abesti tristerik entzun... Koblakariaren begietatik malko batek ihes egin zuen, eta bere edurrezko bizarra busti egin zen. Haizeak Koblakariaren pena konpartitu zuen, zuhaitzek zirgiti egin zuten, eta hostoak malkoak bezala egin zuten hegan, herrestan zeramatzan haizearekin batera, eta txoriek, motelki, bere doinua jarraitu zuten...

Nork daki zenbat denboratan zehar ibili zen, erdi-herrestan Koblakari gaixoa. Bere burutik milaka gauza pasa ziren: Bere ametsa... aintzinako garaiak... Koblakariaren heriotza gertu zegoen, eta zer? Nork egingo zuen negar berarengatik? Nork gogoratuko zuen bere izena? Eta zer? Agian hoberena hiltzea litzateke. ZERK lotzen du Koblakari bat, fantasiarik gabeko mundu batetara? Bai... bere ametsak. «Exeri eta hil zaitez, Koblakari!» —esaten zion ahots batek bere buruaren barruan— «Exeri eta hil zaitez bakean!» —baina beste batek esaten zion: «Ez koblakari... zure ametsa! Gogoratu zure ametsa!»

«Ez egin kasorik! Ez dago ametsik mundu honetan, zuk badakizu!» «Borrokatu Koblakari, zure ametsarengatik, borrokatu!» «EXERI ETA HIL, EZ DAGO AMETSIK MUNDU HONETAN!» «GOGORATU ZURE AMETSA, BORROKATU!» «EZ DAGO AMETSIK!» «BORROKATU!» «EZ BORROKATU» «GOGORATU»... «ametsa... ez borrokatu... ametsa... ez... ame...»

Bere burua lehertzeaz zegoen. Musika entzuten zuen, eta bere

lauta ixilik zegoen. «Ahotsak, ez, ahotsak ixildu dira, baina zer da musika hori?» Musika hura... hain ederra... eta aldi berean hotzikarak eragiten zizkiona, eta hain ongi sentiarazten zuen... jadanik ez zen egarri... ez zen beldur, baina ez zuen etsi nahi, bere ametsa... Baina hain nekatua zegoen, ez... bere ametsa gogoratu behar zuen, ahotsak esaten zion bezala, ez zuen etsi nahi, ezin zuen! Ez, bere ametsa bete baino lehen. «Baina musika hori... non nago? Zerbaitetara heldu behar nahiz, ezin dut etsi. Musika berri ba! Ez, desberdina da, flauta bat. Baina oso urruti dago, musika horretara heldu behar naiz, bai flautaren musika horretara!».

Koblakariak indar sinistezina eginaz altsatu egin zen, ez zuen ondo ikusten, baina flauta hura entzuten zuen. Ez zen bere burua, norbait zegoen han, eta flauta jotzen ari zen. Basoaren zehar ibili zen, eta flauta gero eta ozenago entzun zuen, eta laister ikus ahal izan zuen. Mutiko bat zen, artzain gazte bat ardi talde batekin. Mutikoa, Koblakaria egoera hartan ikustean izutu egin zen, baina korrika berarengana hurbildu zen laguntzera.

—Ura mesedez... ura...

—Ura ez... —esan zuen mutikoak— baina hartu esne fresku hau, ona dago, hartu...

Koblakariak artzainak eskeintzen zion zahagia hartu eta ez zuen tanta bat ere laga. Hamabost bat urtetako artzainak irrifar egin zun Koblakariaren azkartasuna ikustean... eta gehiago harritu zen honek esan zionean:

—Irabazi dut mutil! Irabazi dut!

Eta barrez hasi zen. Artzainak, Koblakaria hain pozik ikusiaz ere barre asko egin zuen, baina ez zuen ezer ulertzen.

Mutiko hura oso atsegina zen. Handik gertu bizi zen bere familiarekin, eta bere etxera joatera gonbidatu zuen. Koblakaria pozik zegoen. Umeak ziren bere itxaropena. Beraiek zuten aukera ilusiozko mundu bat eraikitzeko, beraien gurasoak zapaldu zuten mundu berbera berreraikitzeko, eta Koblakaria, ura ezeztu

zion nekazariaren alabaz pentsatzen hasi zen. Ze heziketa hartuko zuen neskatxa hark? Maitatzen ezik, gorrotatzen irakatsiko zioten. Eta Koblakariak, artzainaren inbitazioa ezeztatu zuen. Hala ere elkarrekin gelditu ziren, eta artzainari eskerrak emateko, abesti bat egin zion, eta mutikoak oso pozik entzun, eta falutarekin jotzen ikasi zuen. Orduan, honek zahagia esnez bete, eta Koblakariari oparitu zion. Gero bakoitzak bere bidetik jarraitu zuen. Koblakariaren aurpegian irrifar bat zegoen marrazturik. Orain itxaropena zuen. Dena galdurik ez zegoela bazekien. Orain bere helburu nagusia bere ametsa betetzea zen. Koblakaria pozik zegoen. Bere ametsetan pentsatzeak bizia salbatu zion.

Iluntzen hasia zen. Gauetz, basoa, berez toki ederra, zerbait beldurgarria bihurtzen da. Basoak lo egiten duen bitartean, kondaira beldurgarria esnatzen dira. Gainera, kondaira guztiak ezagutzen dituen norbaitentzat, basoa ez da bakarrik zuhaitzez eta animaliez beteriko zerbait, baizik eta aparteko mundu bat, imaginaezinezko milaka misterioz beterik. Eta Koblakariak, noski, kondaira guztiak zekien.

Lo egiteko toki baten bila zebilen guztiz ilundu baino lehen, eta bideskaik irten zen berriz. Toki apropos bat aurkitu zuen eta lo egiteko prestatu zen. Baina gau hartan urduri zegoen. Egun hartan gauza gehiegi gertatu ziren. Ez da egunero heriotzaren-gatik ihes egiten! Koblakaria urduri zegoen. Lurrean etzanda, gorantz begira, zuhaitzen artetik izarrak begiratzen, baina urduri zegoen. Gau hartan izar berri bat ikusi zuela iruditu zitzaion. Gau hartan haizea inoiz baino epelagoa iruditu zitzaion. Gau hartan bere azpian zapaltzen zuen belarra hernillea iruditu zitzaion...

Momentu hartan Koblakaria ume jaioberri bat bezala sentitzen zen, dena berria balitz bezala, gauza guztiak lehengo aldiz ikusi eta sentituko balitu bezala... eta koblakariak begiak itxi zituen...

—Aizu! Esnatu!

Koblakariak bere saietzetan kolpe bat sentitu zuen. Begiak zabaldu eta susto ikaragarri bat hartu zuen bere aurrean bost

gizon ikustean. Bi oso altuak ziren, beste bat lodia, tonto aurpegiarekin. Beste bat txiki-txikia, eta bostgarrenak, buruzagia itxuraz, horbain itsusi bat zuen aurpegian.

—Altxa zaitez! —esan zion azken honek— Bizkor!

Koblakaria ahal zuen azkarren altsatu zen.

—Zer nahi duzue nitaz? —esan zuen beldurrez.

—Emaiguzu diru guztia, edo zure tripak bide guztitik zabalduko ditugu!

—Ni behartsua naiz... ez dut dirurik...

—Ezetz? Ongi... orduan zure lauta eramango dugu! —hau esan eta Koblakari instrumentua kendu zioten.

—Begira ezazue! —esan zuen lapur txikiak— Begira nola egiten duen dardar!

Denak barrezka hasi ziren.

—Mesedez... —erregutu zien Koblakariak— nire lauta ez...

—Tira, tira, —zioen potoloak— Goazen hemendik, ea dirudunen bat aurkitzen dugun dirua kentzeko...

—Bai, goazen. —Esan zuten besteek

—Mesedez!

—Ez egin kasorik agure horri, goazen...

Eta han laga zuten Koblakaria, negarrez... ordu pare bat beranduago eguzkia irten zen, eta egunaren lehen argiek Koblakaria eta lehen bezala aurkitu zuten. Belauniko, aurpegia eskuez estalirik. Eta orduak pasatu ziren... eta orduak... eta orduak... eta Koblakariak han jarraitzen zuen. Jan eta edan gabe... bizitzeko gogorik gabe... bere momentua itxaroten... eta gaua heldu zen, eta bere ondoren eguna, eta beste gau bat...

Lehen entzun zuen musika berdinarean zain zegoen, baina hau ez zen iristen. Izarren dizdira bere begi gorrituetan isladatzen ziten. Izugarri gose eta egarri zen, baina ez zuen ezer hartu nahi, berak nahi zuen gauza bakarra musika hura berriz entzutea zen. Baina entzun zuen gauza bakarra bere atzetik zetorren ahots bat zen.

—Aizu!

—Berriz zuek? —esan zuen Koblakariak begiratu gabe—. Ez ahal duzue nahiko nire lautarekin? Hil nazazue!

—Baina ni... lauta?! Koblakaria al zara?

Koblakariak harridurazko aurpegia jarri zuen. Atzerantz begiratu eta ezin izan zuen harridurazko ohiu bat ito. Han ikusi zuen bere adineko gizon bat, zaldi beltz zahar baten gainean, ilargiarekin dizdiratzen zuen armadura abollatu batekin, ezpata handi bat zintzilik zuela, eta bere eskuetan lantza bat eta eskutu bat.

—Zaldun bat zara!

Koblakariak ezin zuen sinetsi ere egin. Zaldun bat! Denak desagerturik zeudela uste zuen... baina ez, han zegoen bat, bizirik!

Sua egin zuten eta jan eta edan ere bai. Zalduna eta koblakaria, biak elkarrekin, dena lehen bezala zen. Bakarrik gauza bat falta zen;

—Zein da zure ametsa, zaldun?

Zaldunak bere bibote handiak ikutu zituen eta hitzegiten hasi zen:

—Nire izena Erwood-eko Gern da. Aintzinako garaietan nire etsaiak dardaraz hasten ziren nire izena entzutearekin. Erwood-eko Gern! Mila gduetako irabazle! Mila lurraldeetako kokis-tatzailea! Ez zegoen niri irabaziko zidanik, ez borrokan, ezta maitasunean ere (esan zion keinu eginez). Nire ametsa beti izan zen gizonik boteretsuena bezala bizitzea, baina orain... hura hain urruti dago... dena galdu nuen, ospea, gaztetasuna... ETa orain nire amets bakarra ohoreaz hiltzea da... dignuki, arrazoi on bategaitik, zaldunen paradisura joan ahal izateko...

Zaldun zaharra begiak bustita eta triste, sutara begira gelditu zen.

—Eta zein da zure ametsa, Koblakari?

—Nire ametsa... nire ametsa guztiz ahalezinezkoa da... eta

gehiago orain... baina hala ere esango dizut. Nire ametsak izan bat du; Menibal. Menibal beste erresuma askoren antzekoa da, baina ez da inoiz edonon, edertasunean konparatu zitzaiokeen herrialderik. Menibalek badu urrez eta harri bitxiez egindako jauregi bat, zilarrezko armaduradun zaindarekin. Kondairek esaten dute bertan bizi dena betirako gazte jarraitzen duela. Emakumeak inon baino ederragoak direla, eta garrantzitsuena... jendeak itsaropena du, ilusioa, haintzina bezala, gure garai urrun haietan bezala. Baina orain, ez daukat indarririk jarraitzeko, eta ez daukat nire lauta... eta Menibal hain urruti dago...

—Eta non dago zuk esaten duzun toki zoragarri hori?

—Egia esan... ez dakit. Iparraldeko mendirik altuenean egon daiteke, eta baita hegoaldeko basamortu urrunenatarikoan ere... hainbeste denbora ibili haiz bere bila, ez zaidala axolari aurkitzen dudana ez... gainera zertarako nahi dut hara lautik gabe iritsi?

—Baina beste bat erosi dezakezu...

—Laut bat erosi? Koblakarien lautak, gurasoengandik semeengana pasatzen dira, ez dira edozein lekutan aurkitzen, gainera ni oso behartua naiz.

—Lasai Koblakari, neuk berreskuratuko dut zure lauta.

Gau guztian zehar egon ziren hitzegiten, abesten, historioak kontatzen, eta dena aintzina bezala izan zen...

—Tira, tira... —esan zuen lapur lodiak beste begira— zer axola du? Gaur ez badugu ezer lapurtu... bihar egingo dugu...

—Bai zera! —Horbaindun lapurra lurretik altzatu zen, eta lurrean zegoen harri bati ostiko bat eman zion. Begira zer izan da bi egunetan lapurtu dugun gauza bakarra. laut zahar bat! Non salduko dugu traste hau?

—Beno... —esan zuen beste lapur batek— Basotik galduta zebilen monja hura ez bazenu hil, erreskate bat eskatu ahal izango genukeen, baina...

—Ixil hadi! —Horbaineko lapurra bestearengana joan zen,

eta lepotik heldu zion— Noski hil nuela! Baina nik badakit zer egiten dudan! Nork emango digu monja batengatik erreskate bat, txotxolo? Gainera denbora guztian oihuka eta negarrez zegoen! Nire ekintzak ez zaizkizu gustatzen, ala?

—Ez... eh... barkatu... nik ez nuen horrelakorik esan nahi...

—Zer gertatzen zaizu, Morek? —galdetu zion beste batek horbaindunari— GAur ez badugu ezer lapurtu, bihar egingo dugu... edo bestela badakizu, Golwing-eko eliza lapurtuko dugu, denbora askotan egon gara lapurketa prestatzen...

—Bai! —esan zuen beste batek— Gogoratzen duzue asaltatu genuen azkenengo monastegia? Ja, ja! Gogoratzen duzue burua moztu nion apaiz hura?

Denek barre egin zuten.

—Bai, baina pena bat izan zen, zeren eta hura eliza pobrea zen, ea ez genuen balio handiko ezer lapurtu... Baina Goldwing-ekoa oso aberatsa da.

—Ongi da, gauerarte itxarongo dugu eta orduan erasotu...

Lapur guztiek pozik barre egin zuten.

Sastraka batzuen atzetik, norbait beraiei begira zegoen...

—Hauek al dira, Koblakari?

—Bai, hauek dira nire lauta lapurtu zidatenak.. baina bost dira, ez dakit...

—Lasai Koblakari, hori nire kontura. Zuk egin behar duzun gauza bakarra beraiek despistatzea da, gero lauta hartu eta ihes.

—Ongi da zaldun... —esan zuen begi tristeez koblakariak—. Hau betirako eskertuko dizut... lagun baina ez dakit nola...

—Tira, tira... zure lauta berreskuratzea saririk handiena izango litzateke... gogoratu nire ametsa, ez dut heriotzaren beldurrik.

Koblakaria triste zegoen. Bera bezalakoa zen pertsona bat aurkitu, eta beharbada betirako galduko zuen...

—Gauetz erasoko dugu... —jarraitu zuen zaldun adoretuak. Biak begietara begiratu ziren, eta begirada hark dena esan zuen, ez zen hitz gehiagoren beharrik izan...

Azkenik, pentsamenduez beteriko ordu batzuen ondoren gaua iritsi zen.

—Dena prest? —esan zuen Morek-ek— Ba goazen!

—Ez hain bizkor! —oihukatu zien Koblakariak beraien aurretik, bere eskuen artean bastoi bat eutsiz—. Nirea den zerbait daukazue, eta ez zerate hemendik pasatuko...

—Begira!—esan zuen batek—. Ez al da hori beste eguneko zahar negarti hura? Ja, ja!

—Egin barre-esan zuen Koblakariak aurpegi gogorrez—. Egingo duzun azkenengo gauza izango bait da!

—Akaba ezazue agure hori!

Momentu hartan lapurrek zaldi baten zarata entzun zuten beraien atzetik, baina beranduegi zen. Konturatu baino lehen, bi lapurren buruak, airetik zebiltzan egan, zaldunaren ezpata zorrotza dastatuz. Konfusio eta odolezko momentuak jarraitu zuten, eta konfusio honetaz baliatuz, Koblakariak bere lauta bereskuratu zuen, lurtean hilik zegoen lapur baten eskuetatik. Baina momentu hartan Koblakariak min izugarri bat sentitu zuen bere bizkarrean. Lapur batek botatako gezi batek bere bizkarra zulatu zuen. Minaren minez lurrera erori zen.

Borrokak jarraitu egin zuen. Jadanik Morek eta zalduna bakarrik zeuden borrokatzen. Azkenik zaldunak lapurra ezpataz zulatu zuen, baina zoritxarrez, honek ere zauritu egin zuen, eta biak lurrera erori ziren. Koblakariak dena ikusi zuen, eta zalduna lurtean ikustean, berarengana joan zen arrastaka.

—Zaldun!

—Lortu al dugu, Koblakari? —esan zuen zaldunak osta osta.

—Bai zaldun, lortu dugu, begira! Hemen dago lauta!

—Orduan —esan zuen zaldunak irrifar batez—. Orduan pozik hil naiteke... nire ametsa bete dut...

—Bai, bete duzu... bete duzu...

Zaldunak begiak itxi, eta hil egin zen, irrifar bat ahoan zuela. Koblakariak negar egin zuen. Bera hiltzen hurrengo izango

zen, baina ez zuen horregatik egiten, zaldunarengatik egiten zuen... baina berak bazekien zalduna pozik hil zela, borrokatzen, arrazoi on batengatik, lagun baten ametsa defendatzen, zihur zaldunen paradisuko errege izango zela...

Koblakariak ez zuen indarririk. Zuhaitzen artetik ilargia ikusten zuen, eta bere eskuen artean lauta heltzen zuen. Zerbait jotzea nahi zuen, baina ez zuen indarririk. Nola beteko zuen bere ametsa? Hiltzorian zegoen, eta orduan musika hura entzuten hasi zen, baina orain lehen baino ozenkiago. Musika eder, eder eta bel-durgarria... eta zerbait ikusi zuen. Zuhaitzen artetik emakume eder bat agertu zen. Inoiz ikusi zuen emakumerik ederrena baino ederragoa, baina inguratzen zuen argi urdin hura, zein izango zein izango zen emakume hura?

—Koblakari... —esan zion emakumeak ahots lehenez—. Heldu nire eskua eta etorri nirekin, zure abentura bukatu da...

—Baina... ezin dut... ez oraindik... nire ametsa bete behar dut, Menibaleraino iritsi behar naiz...

Nik eramango zaitut Menibalera, Koblakari...

—Zu? Baina nola?


—Bai, nik eramango zaitut. Mundu honetan ez dago zuretza-ko tokirik, Menibal zure zain dago...

Koblakaria pozik zegoen, bere ametsa...

—Baina... Eta zalduna? Zer gertatuko da berarekin?

—Zalduna ere Menibalen dago... —esan zion irribarre atsegin batez.

Orduan Koblakariak dena ulertu zuen... irrifar egin zuen... Menibal ez zen lurrean aurkitzen zen toki bat... Bere lauta fuerte eldu, eta emakumeari eskua luzatu zion. Bere eskua epela eta lehuna iruditu zitzaion, eta bere aurpegia... deskribatuezina... eta biak, eskutik artuta, Menibalerantz abiatu ziren... eta Koblakaria ez zen berriz triste sentitu...



Maria Zubiaurre Muguruza
Ertaineko mailan 3. Saria

Monjaburu izendatu ninduten

Monjaburu izendatu ninduten

Ni jaio nintzen negu ilun eta hotz hartan nork esango ziokeen nire amari, besoetan zuen alabatxoa monjaburu izatera iritsiko zitzaionik. Esan baliote ere sinestezina gertatuko zatekeen emakumeak bost belaunalditan haurdun ezkondu ziren etxe xehe hartan. Beharbada, arazo hura zela eta, erabat frenatzeko, Jainkoak bidali ninduen betebeharrak erlijioso eta ustez zuzena zena narekin.

Nire gurasoak ezkontza zeharo pobrea izan zuten, baina ez eztai bidaiaren hainako pobrea, ez, hau etxean egin bait zuten era guztietako beharrak pasatuz. Amak, ni jaiotzeko falta ziren sei hilabetetan, etxeko bazter guztiak arakatu zituen, beti aitaren amaren begirada zorrotzpean. Egun haietan ez zeuden gaur egun dauden aurrerapenak haurdunaldia garaiz antzemateko, ez, tripa irten arte zai egon beharra zegoen. Hala gertatu zen amaren haurdunaldiarekin, atzera egiteko beranduegi zenean konturatu zen. Beranduegi diot zeren eta garai hartan bazeuden bedar arra-roak ematen zituzten emakumeak zeintzu umea pikutara bidaltzea lortzen zuten. Tripa gehiegi igarri gabe konturatzen zirenak oso gutxi ziren eta euren izena garbi mantentzea lortzen zutenak are gutxiago. Aita inguruko baserri guztietan ibiltzen zen bedar txarrak kentzen, haundi eta txarrenak bere etxean eduki arren. Gauean berandu erretiratzen zen eta ama zai edukitzen zuen logela bero-bero zuela, baino giro horrekin aita ziplo erortzea eta sexurako batere indarrak gabe lagatzea lortzen zuen.

Amari oso luzea egiten zitzaion eguna eta beti amamaren berriketaldiak entzuten egoten zen. Amamak ez zuen ama batere atsegin. Amonak aitarentzat beste mota batetako emakumea

nahi zuen, aita pobrea izan arren, herrian idazten eta irakurtzen zekien bakarrenetarikoa bait zen, baina amarekin konformatu behar izan zuen. Luzarora, amak, ganorazko emakumea zela argi eta garbi utzi zion.

Aitona elbarriturik zegoen, gudate zibilean hankak galdu zituen, baina ez zuen sekula bizitzeko gogoa galdu eta momentu txarretan asko lagundu ninduen aitona izpiritu alai eta baikorrak. Hamairu urte nituela hil zitzaidan eta bihotzean benetakoa mina sentitu nuela esan beharra daukat. Denok daukagu pertsonaren bat eredu gisa, asko miresten duguna eta ikaragarri maite. Niretzat pertsona hori nire aitona zen. Beragatik edozer egin nezakeen.

Amaren etxean beharrak ez ziren falta eta ez zuten inolako laguntzarik bidaltzen tratua galdu zuten aitaren aldekoekin. Hiru urte nituela amak sendagilearengana ninderamala esan eta laharrez beteriko bide estu batetatik bere gurasoak ezagutzeko aukera eman zidan. Oso pertsona atseginak iruditu zitzaizkidan aitona eta amona eta osaba xelebrea benetan. Barre algara haundiak bota nituen bere tontakeriak zirela eta. Amak, burua galduta zegoela esan zidan. Neure buruari urte batzuek beranduago zorientasun haretan bizitzearren burua galtzeak merezi zuela esaten nion.

Aita seme bakarra zen eta horrek eragin zuen gosez hil ez gintezen, semez beteriko familiakoa izan balitz eskean ibili beharko ginatkeen.

Urteekin josten ikasi nuen eta trebea nintzenez erropa ederrak egiten nizkion nire buruari kalera esnea saltzera jeitsi behar nintzenerako.

Amak amona jasateko ahaleginak egiten zituen. Ez zuen baxterre maite amona, baina hau lanaren lanez zeharo gastatu zenean berak garbitu zizkion bere zikin guztiak sekula aitzakirik jarri gabe. Amama sukaldeko altzarien artean bereizterik ez zegoen. Tristeia benetan, baina besterik egin ezin. Bizitzan lan gorrak

egindakoak ziren aitona eta amona eta euren bizitzako azken urteetan bizi izan zituzten maitasunaren gorengo sentimenduak. Batak bestearentzat denbora izan zuen. Amak bere begiradapean eduki zituen azken momenturarte. Joaten lehenengoa aitona izan zen eta amama bi hilabetetako epean joan zitzaion atzetik.

Aita eta ama beti lanean zeudenez amaren senideekin erlazioak estutzea pentsatu nuen eta horretarako noizean behin hurbiltzen nintzaie. Arratsalde osoak pasatzen nituen osabaren kontuak entzuten. Hura zen irudimena, hura! Sekulako astakeriak esaten zizkidan eta denak berdeak, bai animalia, bai gizakiei buruzkoak.

Baina haiek ere joan egin zitzaizkidan eta munduan bakarrik nengoela sentitzen hasi nintzen. Gurasoen bizitza zeharo narriatu zen. Ez zutela elkar ezagutzen zirudien ez bait zuten inolako solasaldirik mantentzen. Maite nindutela nekien, baina lanaren lanez nekaturik ez zitzaie niretzako denborarik gelditzen.

Aiton-amonen heriotzarekin bi baserriak geure eskuetara pasatu ziren eta osabak ez zuenez baseria gobernatzeko gaitasunik saltzea erabaki zuten. Baserriak lurralde zabalak zituen, baina aitona zorrak ordaintzen baserria eta inguruko lur zoro txiki bat gelditu zitzaizkigun. Prezio onean saldu zituzten eta osaba bere egoeran zeuden beste batzuekin zentru berezitu batean sartzea lortu zuten. Ez zen maitasun ezaren frogara.

Oso zaila da, agian, ulergaitza askorentzat, baina osaba gure artean atzeraka zihoan, ezin zuen erlazorik mantendu eta bere mundu txikia txikiagotzen gindoazen, horregatik ba, eta maitasuna zela medio, guretzat diru emate haundia izan arren, zorientasuna bila zezakeen toki egokira eraman genuen. Igandero joaten gintzaizkion opariren batekin eta berak bihotzez esker-tzen zigun. Horrela, hiru urte inguru iraun zituen eta igande goiz batez hil zen, baina gure bisita eta gero, gutaz agurtzeko astia eman zion eta momentu haietan, burua primeran daukanaren

gisa, gainera zetorkiona igarri zuen eta malkoekin agurtu zitzaizgun. Momentu haietan sentitu nuena adierazteko pobre gelditzen zait hizkuntza. Bizitza, hitzak, baino gehiago da eta askotan hau dela eta, ihes, eskuetatik ihes egiten digula sentitzen dugu. Gure bizitza egunerokotasunera itzuli zen. Etxean diru pizka bat zegoen eta aitak ganadua salduta gehiago lortu zuen, baina niri esnea banatzeko betebeharra kendu zidan eta hutsa nire barnean sartu zen, hutsa nitaz jabetu zen.

Gurasoek lana gutxiagotuko zutela pentsatu nuen, baina oker nengoen. Hainbeste urtetan lanean egon ondoren, behar gorriarik egon ez arren, ohikeria zela eta jarraitu egiten zuten.

Behin pentsatzen hasi eta amaren familiarik zetozen ezkontza kanpoko haurdunaldiak etorri zitzaizkidan burura.

Haurdunaldiekin erlazioen kontua etorri zitzaidan eta ez nuela nire adinekoekin inolako traturik ikusi nuen.

Ez nintzen eskolara joan aitak erakutsi bait zizkidan oinarrizko gauzak, hau da, idazten, irakurtzen eta batuketa eta kenketa batzu egiten. Ez dakit ikasle ona izan nintzen hala ez, batuketetan eta kenketetan, zenbaki askotakoak baziren, galdu egiten bait nintzen, baina idazteari benetako atsegina hartu nion ez nuelako solasaldirako inor ere.

Gurasoenganako erlazioa galduta zegoen, eurak ere galduta bait zeuden. Ez nuen niretzako horrelako bizitzarik nahi, ez, nik bihotza pozez betea nahi nuen, hori zen nire helburu zuzena. Baserrietako jende gaztearekin tratutan hastea pentsatu nuen, kaletarrak ez bait zeuden nire parean, ez nituen pareko. Nik bizitzak ematen duen kultura pobrea nuen eta ganadu artean egoiteak uzten duen errepe usaia azalean itsatsita.

Kalean dena galduta zegoen, ez nuke sekula benetako lagunik aurkituko eta hori zen nik behar nuena, beteko ninduen lagun bat, nire hutsa betetzeko gai izango litzatekeen norbait.

Hirurak platerera begira afaltzen ari gineneko afari triste haietako batetan beste baserrietako gazteez galdetzea okurritu

zitzaidan. Aitak ez zion garrantzirik eman galderari eta amak ez zegoela nire adineko neskarik erantzun zidan. Inguruko guztiak mutilak zirela eta argi ibiltzeko esan zidan, banekiela emakumeek familiar zer nolako gurutzea zuten. Ez nekien oso ongi zeri buruz ari zitzaidan, baina tiroa nondik zihoan hartu nuen.

Ez nekien zer izan zitekeen txarrago, bide berean jarraitzea eta usteltzea edo ta familiaren tradizioari kolpe egitea.

Ez zegoen denbora galtzerik eta biharamonean nik egindako erropa dotoreenak jantzi eta beteko ninduen zerbaiten atzetik joan nintzen. Bide okerra hartu nuela uste dut, okerra bi zentzuetan, zeren eta denbora luzez ibiltzen ihardun ondoren ez nuen beste baserri batekin ematea lortzen eta erropak izerdiz blai egin zitzaizkidan. Zeharo nekatu eta zuhaitzpean etzan nintzen deskantsua hartzeko asmoz.

Bero haundia zegoen eta haizeak justu justu laztantzen ninduen. Inguruko usaia zoragarria zen. Bedar usaia eta hain atsegina egiten zitzaidan zimausaia ni lokartzea lortu zuten. Bai, zimausaia atsegin nuen eta ez dut oraindik denaren jakinaren gainean zimausaia ez duela atsegin esan didanik, ezta ezagutuko ere, baserriarren artean ez behintzat.

Betirako lotaratu nintzela pentsatzen hasia nintzen, baina esnatu egin ninduten eta konturatu nintzenean hiru gizonetako inguraturik nengoen. Zeharo beldurtu nintzen eta nire sudurrak usaintzen zituen lurrin zoragarri guzti haiek bakar batera murriztu zitzaizkidan, gizonaren izerdi usai naskantera. Oraingoan zera argitu behar dut, ez dudala usai hau atsegin duen gizakirik ezagutu ezta ezagutuko ere, mundu honetan dagoen usainik jasanezinena delako, beharbada izaki jasanezineakotik datorrelako.

Zeharo atsegin portatu ea agurtu egin nituen. Euren aurpegietan zerbait arraroa somatzen nuen, euren onetik irtenda zuek dela zirudien eta hala zen. Euren bizitzan ikusi zuten bigarrego emakumea nintzela zirudien, ama lehenengo ezagutu izan zutela

suposatzen bait dut. Bik beso banatetik heldu ninduten eta nire irudimenaz kolore eza, kolore beltza jabetu zen. Garresi egin nuen, baina zeharo desbideratu nintzen alferrikakoa izan zen. Batek igitaia zuen eskuan eta harekin egin ziezadakeena pentsatuz geldi-geldi geratzea zela zuzenena eta hala egin nuen. Kortako ganaduak bakarrik ikusi eta ezagutu nituen egoera haretan. Burua nire osabak baino okerrago zuten haiek, nire barnera sartzeko aukera izan zuten. Bik egin zidatenaz jabetu nintzen, hirugarrengok egin zuen ala ez, ez zait batere axola. Osabak kontatzen zizkidan berdekeria harrigarri haiek gogoratu nituen eta zein argia zen ikusi nuen, ez zuen burua galduta, hauek zuten burua galduta, baina nik euren arima galtzea nahi nuen, euren arima!

Bertan behera botata utzi ninduten. Ez dakit nondik atera nuen indarra, baina etxera iristea lortu nuen. Amak egoera haretan ikusi ninduen jakinaren gainean jarri ninduela esan zidan. Ez nion ezer ere esan.

Nik etxetik irten nahi nuen nire hutsa betetzeko eta lortu nuen, hutsa gorrotoz bete nuen.

Ez nekien zer ordu zen, axola ere ez. Nituen gauzak hartu eta etxeko atea betirako itxi nuen. Kalera jeitsi eta parrokoarengana joan nintzen. Dena kontatu nion eta ni kontsolatzen hasi zen. Konturatu nintzenerako nire bularretan zuen esku bat eta bestea bidean zekarren. Kristoren belarrondokoa eman nion, eta sekula ez hobeto esanda kristoren belarrondokoa.

Bere etxetik irten eta monjen etxera joan nintzen. Berrito ere dena kontatu beharra izan nuen, baina oraingoan luzeagoa izan zen, bigarren esperientzia bat nuelako. Eurak ulertu ninduten eta zera esan zidaten, Jainkoaren etxean sartzeko gorroto hura kanporatu behar nuela. Hiru hilabete pasatu nituen euren artean nire arima preparatzen eta azkenean euretako bat izatea lortu nuen. Bertan zeharo zertu nintzen.

Ez nuen gorrotoa ateratzerik lortu eta haiek engainatzeagatik

barkamena eskatzen diot gauero Jainkoari, baina nik monja izan nahi nuen eta gorrotoa ateratzea ezinezkoa zen. Piskanaka piskanaka euren konfidantza irabaztea lortu nuen. Konfidantzarekin bat, postu garrantzitsuagoak. Idazten jarraitu nuen, baina solasaldiari ekin nion, Jainkoa nuen solaskide eta nik entzun nahi nuena esaten zidan, nik nire Jainkoa egin bait nuen. Monjaburu egin ninduten eguna maitasunez gogoratzen dut.

Bizitzan izandako paperik garrantzitsuena izan zen. Herrian eta elizan boterea lortzea izan nuen. Nire diktaduratxoa ezarri nuen, baina jendea pozik eta hutsik gabe bizitzea lortu nuen.

Ezin izan nituen gizon haiek akabatu nire kideekiko nuen errespetuagatik eta nire Jainkoak ez zuelako onartzen.

Gurasoak hil zitzaizkidan berriro tratuan hasi eta piskatera. Zaharrak ziren eta behar ninduten. Amak monjaburu ikusi ninduenean pozaren pozez negar besterik ez zuen egiten eta mal-kotan itota hil zen. Bere burua errudun sentituko zuen. Aita isil isilik hil zen solasaldirako gaitasuna aspaldi galdu bait zuen, baina baten baino gehiagotan bakarrik harraptu nuen. Gurasoek euren meza izan zuten Jainkoaren etxean eta osabaren alboan lurperatuak izan ziren.

Orain eta urteak aurrera jo dutelako nire ondorengo aukeratu dut. Arima garbi garbia duen neskato bat da. Ez dute ni ekarri ninduten esperientzia txarrekin bultzatu eta horrelako pertsona baten beharra dagoela uste dut, nire gorrotoak aldaketa batzu eragin zituelako.

Orain nire bizitzako azkenengo urteak hemen emango ditut nire esperientzia, denen artean ezagutua, jasan duten neskak laguntzen. Lagundu nahi dut eta kalera irtetzeko adorea eman nahi diet nik pareten atzetik egin nuena, kalean aurrez aurre egin dezaten.



Alberto Ansuategi
Helduen mailan 1. Saria

«Nire aitonaren bihotzean»

—Sagar bat jan ezazu bederen...
 —Ez eginda nago eta gainera aitonaren eziza jositzen dut
 —Aitonak, aitona, aitona...
 —Ez eginda nago eta gainera aitonaren eziza jositzen dut
 —Aitonak, aitona, aitona...
 —Ez eginda nago eta gainera aitonaren eziza jositzen dut

«Nire aitonaren bihotzean»

«... Hau duk bizioa, hau! Erretzen utzi behar diat. Birikak sano dizkiat, baina nire poltsikoak «minbizi errebertsibela» harrapatu dik. Sosik ere ez zaidak gelditzen. Gorkari eskatu beharko zioat zigarrotxo bat. Epa... Edurnerekin solasean ari duk. Ez diat muturrik sartuko, ze moskeatu egingo bait da.

Horko neska talde horrek beharbada izango dik. Aizuek, zigarrorik bai?... primeran, neuk ere beltza erretzen dinat... hi ez haiz hemengoa... ño, bizkaitarra beraz...

Txunditurik niagok. Hoiak dituk begiak. Zezen plazak ziruditek. Atzekaldea ere ez duk mespretxatzekoa. Levi's hestuak beti izan dituk erakargarriak honelako gorputza duen neska batetan..

Ezin dizkiat nire begiak beragandik urrundu. Berak igarri dik eta gorritzen ari duk. «Sabina»ren diska alu hau kenduko balute bederen...

Itxaron ezak piska bat. Edurne joan baduk ere neuk horko neska hori gustoko diat. Gainera hiru t'erdia pasa dituk eta ezer ez diagok zabalik jadanik (...).

Ziur nago ni izorratzeko egiten duela. Ajea dudan bakoitzean aitak ganbaratik ardo berezi botilatxo bat jeisten du eta ezin uka diezaioket tragoxka bat, ze, bestela, atzoko parranda igarriko luke... Halako barrabaskeriak «Amnesty International»ek salatu beharko lituzke. Ez dago eskubiderik. «Parranderoan giza-eskubideen alde!». Ño, oraindik atzokoak irauten dit. «Delirium Tremens» delakoa ote?

—Aizu, motel, bukatu ezazu platerkoa hoztu baino lehena-go!

—Ase eginda nago eta gainera aitonaren etxera joan behar dut gaur joango nintzela agindu nion eta.

—Sagar bat jan ezazu bederen...

—Goserik ez dudala esan dut...

Sarritan joaten naiz aitonaren etxera ze primeran konpontzen bait gara elkarrekin eta atsegin dut ezer egiteko ez dudan arratsaldetan berarekin solasalditxo bat izatea edota kartetan apur bat aritzea. Bion artean badago nola edo halako konplizitate bat. Pattar kopatxo bat edan eta «Ducados» bana erretzen dugu. Sendagileak debekatu zizkion aspaldian bai edaria eta baita tabakoa ere bere «arteriosklerosiarentzat» txarrak omen direlako, baina berak esan ohi duenez, honelako plazerrik gabe bizitza ez da ezer eta arrazoi faltarik ez du.

—Triste xamar zaude, xagutxo!

Ez dakit ziur zer dela eta, baina aitonarentzat beti izan naiz «xagutxo». Atsegin dut ezizena, batez ere nire aitonaren ahotan.

—Maiteminduta nagoela uste dut, aitona. Bart neska bat ezagutu nuen eta zeharo liluraturik utzi nau.

Aitonak ez ditu begiak altxatu ere egiten. Bere esku dardartiak patxaran botila eusten du eta jario gorrixka edalontziko hormetatik nola irristatzen den begira gelditzen da.

—Maiteminduta? Mutil, hori gauza serioa da!

—Ba, honek benetan bihotzean ukitu nau.

—Bai... berdina esan zenuen direla pare bat aste... Eider izena zuen, ez da?

—Hura bukatu zen, baina honako hau bai dela neska polita...

—Xagutxo, gaur egungo gazteek errezege erabiltzen duzue «maitemindu» hitza eta esango nuke benetan maite izatea zer den ez dakizuela.

—Ño, piskatxo bat pasa zara, aitona.

—Ez, egia da. Gaur egun zuen «maitemintzeek» asteete irauten dute eta neu bizitza guztirako maitemintzeaz ari naiz.

—Bai zera! Hori haurrei kontatzen zaien ipuinetan besterik ez da gertatzen.

—Ez, xagutxo, ez. Neuk ezagutzen dut benetazko ixtorio bat...

-Ea ba... bota!

Une batez isilune bat egiten da. Aitonak edalontzia astiro-astiro ezpainetara hurbiltzen du eta zurrutada motz bat jo ondoren mihiaz aho ertzak bustitzen ditu.

«... Garai batetan gure bizimodua zuenaz bestelakoa zen. Txikitandik baserriko lanetan aritzen ginen eta ez genuen asti handirik, igandetan ezik, lagunartean ibiltzeko. Abereak gobernatzen, belarra metatzen, behiak jezten eta halakoetan joaten zitzaigun egun osoa...».

Aitonari beti gustatu izan zaio bere gazte denboraz hitzegitea. Horretarako parada aurkitzen duenean begiak argitu egiten zaizkio eta hitz jario etengabeaz luze aritzen da. Noizean behin orduak ematen ditut bere oroitzapenak nireak balira bezala bizitzen eta gozatzen.

«... Bazen pagadiz eta zumardiz josiriko bailara bat, gaur egun aurkitzerik ez dagoen horietarikoa, eta erdi-erditik zeharkatzen zuen errekatxoaren altzoan, alde banatan, bi baserri aurkitzen ziren, elkarrengandik oso hurbil eta bien arteko lotura bezala egurrezko zubitxo bat zegoelarik.

Hain zuzen ere, zubitxo hartan jostatzen ziren «Errekondo» baserriko semerik gazteena, Mikel, eta «Zubikoa»neko alaba bakarra, Bakarne. Neguan, elurteren bat suertatzen zenean eta inguruko mendixkak zuritzen zirenean, haur biek zubitxotik harri koxkorrak jaurtitzen zituzten ea nork lortzen zuen izotz kapa hura haustea. Baita ere, udarako arratsalde sargaritsueta Mikel zubi ertzean esertzen zen ondoan Bakarne kontu kontari zuelarik eta anai nagusiak eginiko kainaberaz amuarrainetan aritzen zen. Inoiz bietariko bat gaixotzen bazen, besteak ez zuen bere ondok alde egiten sendatu artean.

Haur biak elkarrekin hazi eta hezi ziren eta inguruko baserrietan adiskide asko bazuten ere arratsaldero biak bakarrik jostatzen ziren beraien zubitxoan...».

Aitonak zigarroa itzaltzen du «Brandy INSUPERABLE»

dioen kopa formako hautsontzian. Oroitzapenak dakarzkiz gogora. Badira txiki-txikitandik buruan gordetzen dituzun oroitzapenak eta nirea hori da: argi horixka, sukalde bat, janari usaia, irratia batetan futbola, SOBERANO, euliak nonnahi...

«... ur asko igaro zen «Zubikoa» eta «Errekondo» arteko zubitxetik eta bapatean inguruko zelaietan jauzika zebiltzan ume koxkor haiek gazte bikote sendo eta alai batetan bilakatu ziren. Mikelek, Bakarne alaba bakarra zenez, Zubikoanekoei baserriko lanetan laguntzen zien, ze orduz gero inork ez zuen dudatan jartzen etorkizunean lur guzi haien jabe bera izango zenik. Egia esan, begi bistakoa zen gazte biek elkar maite zutela, nahiz eta beraiek ezkongai zirenik aipatu ere ez egin, eta bai Mikelen eta baita Bakarneren gurasoek ere onerizten zuten beraien semeen harremana.

Halaz ere, zoritxarra edonoiz ager daiteke eta Mikel, hamasei urte bete berri zituela, gaixorik eta sukarretan urtuta itzuli zen basotik. Sendagileak eta sukarretan urtuta itzuli zen basotik. Sendagileak ez zekien ze gaitz zuen, agian tifusa izan zitekeela. Dena den, Mikel larri zegoen. Ite asko jausi zitzaion, baita mihia erdibitu ere sukarraren ondorioz. Ohetik altxatzeko gauza ez zen. Jan ere ez zuen ganoraz egiten eta hilabete batzutan bere ohizko pisuaren erdian gelditu zen. Inguruan inork ez zuen espero Errekondo baserriko semerik gazteenak luzaroan iraungo zuenik baina, hala eta guztiz ere, Bakarne ez ezik bailarako jende ugari hurbiltzen zen San Pedroko baselizara Mikel senda zedin otoitz egitera.

Negu latza igaro zuen Mikelek eta malko ugari ixuri zuten Bakarneren begi ederrek gaztea zetzan ohe ondoan, baina udaberrian, txantxangorri eta txepetxen lehen kantekin, gure Mikelen bihotza indarberritu egin zen eta aste batzuren buruan berriz ere soroko lanetan hasi zen. Bakarneren begietako distira bere poztasunaren adierazgarria zen eta San Pedrori bere esker ona erakutsi nahiean lora sorta bikain bat jarri zion aldare azpian.

Mikelentzat, berriz, Arantzazuko amaren irudia zuen urrezko domina bat erosi zuen jostun lanetan aurreztua zuen diruarekin, aurrerantzean bere maitea gaitz guzietaz babes zezan...».

Poxpoloaren zarataz aitonaren sukaldera itzuli nau. Inguruaz guztiz ahaztu naiz eta esan liteke une batez Mikel eta Bakarna-ekin izan naizela beraien zubitxoko ohol zaharkitsuetan eseria. Aitonak nikotinaren eraginez hori kolorea hartu duten hatzen artean zigarroa eusten du. Kea gorantz dihoa sukaldeko atmosferan piskanaka desegiten delarik. Neuk ere «Ducados» bat erre behar dut.

«... Baina zorigaiztoak ez zuen esku hutsik aldegin nahi eta patuak ezuste garratz bat oparitu zion gure maitale bikoteari. Iraila bukatzeaz zegoen eta ondoko bailaran Mikel Deunaren jaiak ospatzeko erromeria bat antolatua zuten. Ohitura zenez, inguruko baserrietako mutil gazte denak goizean goiz bildu eta umore onez abantatu ziren otarteko bana hartuta «Larrazabal»enera bertan trikitalarien soinupean bertsoan eta bolo-jokoan aritzeko abagadunea izango zuten eta. Jende asko biltzen zen urtero «Larrazabal»enean eta ederki asko bustitzen zituzten barrenak bertan eginiko sagardoarekin eta Getaritik ekarritako txakoliarekin.

Gure Mikel ez zen parranda bati uko egiten zion horietakoa eta jasan berri zuen gaixotasunaren ahulezia zela eta mozkor galanta harrapatu zuen egunaren bukaerarako. Jai giroak bulztatua eta ardoak ematen zion indarraren laguntzaz, irripartsu berari so zegoen neska ile-hori bati hurbildu zitzaion. Ilundu bitartean elkarrekin aritu ziren dantzan eta solasean, baita xurru-tean ere, azkenean Engrazik (hala zuen izena neskak) etxera alde egin behar zuela esan zuen arte. Han abantatu ziren Mikel eta Engrazi azken honen baserriko bidean eta ilargi betearen eraginpean «elkar ezagutu» zuten...».

Sukaldean bero egiten du eta aitonak musuzapi batez bekoko izerdi tantak lehortzen ditu. Nik neuk ere, patxaranaren

eraginez agian, masailak bero-bero igartzen ditut baina aitona-
ren kondaira mozteko ausardirik ez dut eta jertsea erantsi bes-
terik ez dut egiten berriz ere Mikelen gorabehera interesgarri-
tan murgiltzeko.

«... jai egun alai bat izan zitekeen hura amets-gaizto bihurtu
zitzaion gure Mikeli eta mutilaren bizitzak erabateko aldaketa
eman behar izan zuen Engraziren sabelean ernatzen ari zen
haurra zela eta. Garai hartan honelako arazoek irtenbide bakarra
onartzen zuten, berehalako ezkontza, eta ezkontza hark min
handia egin zion Bakarneri. Aste batzuren epean neska alai,
baikor apain eta berritsu hura zeharo aldatu zen. Bere buruaz
ardura guzia galdu zuen. Zaharragoa zirudien. Betazpi ilunek
bere aurpegiaren tristura areagotzen zuten eta garai batetako
adiskideak agurtu ere ez zituen egiten. Piskanaka jostun lana ere
alde batetara utzi zuen eta azkenik bere logelan ematen zuen
egun osoa, leihotik urte askotan bere jostaleku izan zen zubi-
txora begira.

Mikelek herriko fabrika batetan lan ugari zegoela jakin zuen
eta bertara joan zen bizitzera emaztea eta semetxoa hartuta berari
ere jasangaitza egiten bait zitzaion maite zuen neskaren base-
rritik hain hurbil bizitzea.

Banaka-banaka urteak pilatzen joan ziren Mikelen bizka-
rrean. Bizitzak ez zion gehiegi eskeintzen. Gaixotasun batek
alargun utzi zuen eta asko kostata bere seme bakarra bideratzen
joan zen gizon egin eta familia bat osotu zuen arte. Denboraren
eraginez ileak zuritzen joan zitzaizkion eta ximeltzen ari zen
gizon haren barrenean oroitzapen batek bihotza hestutzen zion
bizitzeko grina guzia ohosten ziolarik.

Bakarneri dagokionez, hura ere gazte bati zegozkionak das-
tatu gabe zahartzarora heldu zen. Leiho hartan egin zituen urte
guzi haiek bere bihotzaren samindura oroitzapen goxoan bitar-
tez estali nahiean, errealitateari bizkarra emanaz.

Gure maitaleen zubitxoak ere pairatu zuen denboraren era-

gina. Goroldioak itzalean gelditzen zen alderdi guzia estaltzen zuen eta hezetasunaren ondorioz egur puska asko hautsi beharrean aurkitzen ziren. Bitartean, errekek bere bidea jarraitzen zuen zubipetik, aspaldian bezala, inork geldi ez zezakeen ur jario etengabea...»

Noizean behin gertatzen zait, betidanik ezagutzen dudana pertsona bati begira gelditzen naiz eta bere aurpegia ezezaguna egiten zait, detaileren bat aurkitzen dut hainbat eta hainbat urtetan ohartu gabe ikusten aritu izan naizena. Izan ere, nire aitonari begira ari natzaio eta esango nuke nire aurrean hizketan ari zaidan agure hau, nire aitonaren traza izugarria badu ere, lehenengo aldiz ikusten dudala.

«... Badakizu, jendea adin batetara heltzen denean, bizitzak eskein diezaiokeen apurraz ahaztu egiten da eta iraganari begira bizi ohi da. Honela, Mikelek, haurtzaroko lagun batekin gazte denboraz hitzegiten ari zela, Bakarne biriketako gaitz batek jota hilzorian zegoela jakin zuen. Egoera hartan ezinbestekoa zuen «Zubikoa» nera joatea eta hainbeste urtetan zapaldu gabeko zubitxo hura igarotzeak hotzikara bat eragin zion.

Bakarne bere logelako ohean zetzan, lehengusinak zapi batez izerdia txukatzen ziolarik. Adinak, gaixotasunak eta baita atsekabeak ere aztarna ugari utzia zuten Bakarnegan. Baina betazpi ilun, aurpegi zurbil eta adats zurixka haren azpian garai batetako edertasuna soma zitekeen. Are gehiago bere begiak Mikel berrikusteaz batera piztu zirenean.

Mikel ohe ertzean eseri zen eta esku biez Bakarneren esku hezea hestutu zuen. Biak elkarri begira gelditu ziren, luzaroan, hitzik esan gabe. Bakarne estulka hasten zenean Mikelek bizkarretik helduta ohean eser arazten zuen eta ur apur bat ematen zion. Ez zuten elkarri ezer esan beharrik, esan beharreko guzia beraien begiek adierazten zuten eta.

Orduak eman zituzten ere hontan eta ilargiaren argitasunak gelako leihotik Bakarne laztantzen zuenean Mikelen ezpainen

hitz bat ihes egiten utzi zuten: barkatu. Bakarneren masailetik malko bat irristatu zen eta neskaren ahotik baiezko bat irtetzen zen une berean azken arnasa bota zuen. Bakarne bere maitearen besoetan hil zen, baina bere aurpegian zoriona ageri zen. Mikelek ezin eutsi ziezaiokeen negarrari...»

Kalean norbait txistuka ari duk. Ziur asko Gorka izango duk... Banihoak! Itxaron ezak piska bat! Beno, aitona, joan beharra dut... Gorkak alkondara txuria jantzi badu gaur ere parranda izango dugula susmatzen diat... Ez diat ba gogo handirik tabernaz-taberna aritzeko. Auskalo, beharbada bizkaitar neska hura ikusiko diat...

Aitona pentsakor gelditu da. Mahai gainean bi edalontzi dau de patxaran apurtxo batekin. Fluoreszentearen doinu sarkorrak sukaldea alde zeharkatzen du. Urteen pisuak aitonaren bizkarra zertxobait makur arazi du eta pausu motelez bere logelarentz abantatzen da. Ohe ondoko kajoi batetatik Arantzazuko amaren irudia duen urrezko domina bat ateratzen du. Eguzkia mendi artean izkututzen ari da. Aitona nekatua dago.

Sudur baten gorabeherak



Diana Perez de Albeniz
Helduen mallan 2. Saria

Sudur baten gorabeherak

Sudur baten gorabeherak

—Eta nerbioetatik, zer moduz zabilta?

—Beno...

—Inoiz atake epileptikorik izan duzu?

—Ez, baina horrek zer zerikusi...

—Espasmorik izaten duzu?

—Zer da espasmo bat?

—Muskuluen mugimendu ez boluntarioak, ajitazioak.

—Ez dut uste.

Mahai atzean babesturik, tripa eliptiko batek gerria besarkatzen dio. Bere burusoil likina estaltzeko alde batetara orrazten duen ile taldetik izerdi tantoak irristatzen zaizkio. Aldi berean, hitzak jariatzen dituenean listu haritxo bat bihurka dabilkio hortz banandu karieztatuen artean, eta bere puztutako sudur haitzulo ilunak handitu egiten dira aire korronte kirastu bat bultzatuz.

Nire erantzunak idazten ditu. Bukatzean zuzenki begiratzen nau, baina arretaz begiratzen ez duenak bezala. Pixka bat aurreratu da mahaiean eta buruaren pisua ukalondoa apoiatuta daukan besoan ipini du.

—Lortu behar dugun lehen gauza, zu lasai zaitezen da. Kap-sula batzu emango dizkizut eta hamabost egun barru azal zaitetz hemendik.

—Baina ni ez nago urduri.

—Hori zuri iruditzen zaizu. Baina barnean eduki dezakezun tentsioak eraginik izan dezake.

—Nire sudurzuloen tamainan? Benga...

—Hambost egun arte lagun.

Amagemonek hitz gehiago gabe atera jotzen du. Atea bere atzean itxi eta, ezker aldean lanmahai azpian ezkutaturik daukan telebista txiki horietako batetara so ari den neskaren albotik igarotzen da, begiratu gabe.

—Hurrengora arte jauna.

—Bai.

Aurreko atea zeharkatzen du. Ai, ai, ai, Agamenon, ez zara ez oso konbentzituta irten psikiatratik ez. Begirada lurrean sartzen da igogailuan, orain beheragailua edo. Bertako ispiluan bere burua begiratzen du sudurrean hazka egiten duen bitartean.

Zer uste zenuen ba, honek erantzun hobea emango zizula? Zer esan jakin gabe gelditu da, eta tori! Jantzak mogolloia pastilla urduri ez egoteko. Urduri! Bera bai jarri dela urduri nire sudurzuloen tamaina ikustean. Konturatu haiz? Barrea ezin eutsirik egon da. Alua! Ez naiz berriro bueltatuko. Ez dut xoxik utziko mangante sasimediku horren etxean ez!

Fu! Badirudi haserre bizian dela. Normala da, izan ere. Nori bururatzen zaio psikiatra batengana joatea.

Portaletik irten, eskuak patriketan sartu, eta zangokada luze bortitzez zuzentzen ditu bere pausoak espaloian zehar. Berarekin gurutzatzen den jendea harrিতuta, liluratuta, norbaitek agian izututa begiratzen dio. Zergatik? Zelan ez diote ba begiratuko ukabila sartzeko adineko sudurzuloak baditu! Nazkatuta dago eta arazo honi bukaera eman nahi dio. Nola dedikatuko da horrela bere pasiorik handienera, politikara? Nola aurkeztuko du bere burua propaganda karteletan sudurzuloak besterik ikusiko ez zaizkion gizona? Zuk botua emango zenioke?

Bere dezepzioaren zamarekin Txoko tabernan sartzen da, eta nik ez dut inoiz ulertu kale luzearen erdian egonik nola Txoko deitzen den, pote bat hartzera etxerako bidean. Beltz bat eskatu eta, torti, odoloste, legatz, txaka... tortilazko pintxo bat hartzen du. Barra atzean kamareroak disimulatzen edo, baina batere disimulorik gabe begiratzen dio, sudurrera noski. Agian «joe, horrek musuzapi gisa bikote oheko maindirea beharko du» pentsatzen. Bera, ezta konturatu ere, bere pentsakizunetan dabil igeri.

Ez nion kasurik egin behar Ireneri, tipoa ezaguna zuela, bere

lanean onenatarikoa, kaka zaharra!

Eskua poltsikoan sartzen du ordaintzeko dirua atera nahiean.

—Kontxo, Agamenon! Zelan zu hemen? Honezkero andrea kezkatuta izango duzu etxean, eta bazkaria hotz jada.

—Zereginik nuen eta... Baina berak badaki.

—Ah, ez da ezer gertatzen orduan. Kezkatuta ikusten zaitut. Arazorik? Bai, badakit, Gimenezek putada egin dizu berriro, eh? Zeuretzat nahi zenuen erreportaia eta... Gainera, uste dut norbait akabatu dutela txantaiaren arazoan, ez?... Ah, ez, ez da hori. Kanpainagatik al da? Desdeluego nire ustez aproposago zara zeu buru bezala, baina... Ez da hori ere. Ba zer demontre da orduan?

Zelako txapa! Agamenon gaisoa, bere buruhaustearekin nahikoa ez balu bezala, orain Txomin aguantatu behar.

Asperen xuabe bat eta,

—Begira, nire sudurra dela eta... nazkatuta nauka. Zulo hauek otso kobak dirudite.

—Beno, beno, ez da hainbesterako.

Lau egun hutsa, bere espezialidadea; ez du bere hitzik sinisten.

—Orain arte gauzak ondo zihoazten, hein batetan. Burla asko jasan izan ditut txikitatik, eta negar asko jario. Egin didan mesede bakarra, soldadutzatik libratzen laguntzea izan da. Pentsa, sudurzulo handiak izateagatik inutil totala, ja, ja, ja! Ba nik beti pentsatu izan dut aurkako tropak hankaz gora jartzeko atxis batekin nahikoa izango nukeela, ja, ja, ja!

Agamenon buru ustel, deprimitua eta txiste txarrak kontatzen. Txominek harridura aurpegiz begiratzen dizu. Ez da egunerokoa Agamenon txantxetan ikustea.

—Baina joandakoa joana da. Orain ere jendeak tonto aurpegiz sudurrari nola so egiten dion soma dezaket, baina, nork kulpa ditzake? Metro erdi diametroko belarri bat duena ez nuke nik beste modu batetan begiratuko. Hamabost egun direla, oster.

Txomin tontoturik begira jarri zaio, eta dirudienez arreta

handiz, hitzik ez du askatzen eta, gauza zeharo ez normala beragan.

—Amets izugarri bat izan nuen. Gezurrak esateagatik sudurzuloak zabaltzen eta zabaltzen ziren, azkenean, panba! estanda egin arte. Esmatzean, txikitatik zuloak hazten ari zitzaizkidala hainbat aldiz gurasoengandik entzun ahal izan nuena gogoratu nuen: «Gaizto eta gezurtia zarelako hara zer gertatzen ari zaizun. Zintzoa zaren arte ez zaizkizu geldituko». Eta, benetan diotsut, kriston kezka nuela esnatu nintzen. Egia esan, ez dut inoiz jakin zer dela medio fenomeno hau gertatu zaidan, eta gainera, hainbeste dira jartzen dizkidan oztopoak... Sendagile batengana joatea bide zuzena izango zelakoan, baina ez anbulategira, nor fida daiteke ganoragabeko horietaz? urrutibeaskoa, baionbre, txiki potolo betaurrekodun hori, Ama Birjina Purisimaren prozesio kalean bizi dena; ba berorregana joatea erabaki nuen. Gaztetandik astero futbolearen jokatu genuen elkarren aurka, bakoitza bere taldean. Beti iruditu zait tipo jator eta langilea, eta... beno, harira. Kontsultategian azaldu nintzaion. Arazoaren jatorria jakin nahiean nembilela, eta beharrezko esperimendu, froga edo denadelako guztietarako prest nengoela jakin arazi nion. Odol analisisa, sudurrezko zelulen azterketa egin, zuloak x izpien bitartez begiratu... Eta, zein uste duzu izan zela erantzuna? Ez zela anormaltasunik ikusten, zerbait genetikoa izan behar zuela. Nire aita eraman nezakeela froga konparatiboak egiteko... Bai zera, hilik dago! Ba, beno, orduan irtenbide bakarra zirujia. Hori lehendik ere suposatzen nuen. Zergatirik ez.

Berriz sartzen du eskua poltsikoan dirua ateratzeko. Ordaindu eta Txomini agur eginda (horren kontuak entzuteko denborarik utzi gabe, bere aho korapilotsua ezagutzen du eta) kaleratu egiten da.

27ko 5. pisua; eta hemen ez dago igogailurik. Bertan dauka zai pitxurri, zera... Maria Eujenia, artega, alde batetik bestera, honi ikutu bat hari beste bat emanez, zereginik gabe. Bazkaria behin

eta berriro berotzen, besterik egin ezinean. Agamenonek atea gurutzatu bezain laster jakingo du gauzak nola joan diren; bere aurpegira begiratu besterik ez du. Badaki zenbateraino suposatzen duen berehala konpondu beharreko buruhauste bat arazo honek bere Agamenonentzat. Mariaeujerentzat, aldiz, arazo bestelakoa litzateke. Sudur eta guzti zaio laket senarra; hori baino gehiago, sudur gabe, beno sudur gabe... sudur txikiagoa balu, ez lirateke gauzak berdin izango, ezta ongi joango. Ez da Agamenonen nortasuna ezkerreko sudurzuloan dagoela, ez. Ez litzateke pertsona bera izango baina. Politikari eskeiniko litzateke bere minutu guztiak orduan, eta emaztearentzat ez legoke leku handirik. Giltza entzuten du atean...

—Ezer ez.

Begiak ixten ditu Maria Eujeniak atake kardiakotik gertu dabilen bihotza lasaituz. Besarkada eta muxu goxo bat senarrari.

—Eseri jatera eta kontatu dena.

Agamenonen abots tristeak esperientziaren gorabeherak azaltzen dizkio. Eta, jakina, Mariaeujeren momentuko zoriona puskatzen du; azken finean bere bihotzeko azukre koskorra da, eta ezin poztu da bere atsekabearen aurrean.

—Eta psikologo bat? Horiek ez dira pastilak banatzen aritzen. Ez dira medikuak, baina, beno badakizu, Luisaren alaba horretan ari da, unibertsitatean, eta kontatu izan dizkidanak ez dute nire mespretxua merezi izan.

—Psikiatrak, psikologoak... azkenean burutik jota nagoela esango didate; berdin zait.

Benga, Agamenon, ez itxaropenik galdu. Oraingoan apika bide zuzenera joko duzu. Begirada mahai gaineko Manso Hermanosean finko, itxaropen desitxuraua buru barnetik kolpeka.

—Hasiz gero, ze arrai! Aurrera ba.

—Ez dut psikologorik ezagutzen, baina listinean azaldu beharko da bat edo beste.

—Mari Eujenia sukaldetik irtetzen da, eta segundu batzutara

berriz azaltzen listina eskuan, orrialde horiak.

—Mmm... Bai; askorik ez dago, baina honen izena atsegin zait, Julio Alberto Vargas Madariaga. Orain akaso ez dugu bertan aurkituko. Zoaz lanera lasai eta deituko diot nik.

Buru erditik alboetara jausten zaizkion ile gaztain gutxi zainduek badute mozqueta baten beharra. Flekilloa, horrela deitzerik badago sudurreraino erortzen zaion ile olatu basatiari, albo bitara aldentzen du ikusteko ahaleginean. Bizarra, ordea, apain dago; antzematen da honi aurrekoari baino kasu gehiago egiten diola. Piper sudurra eta aho zabala. Itxura erosoazko aulki batetan eserita daukagu, zango bat bestearen gaintetik, gurutzaturik. Jolasean dabil estilografikarekin (ederra estilografika; dirutza bat kostatu zaio, ziur. Soldata oparoa lortuko duelakoan nago) eskuarteko blokan kolpetxoak emanaz.

Siesta egiteko tramankulu ederra! Halako bat beharko nuke etxean bazkalostean egunkaria irakurtzeko; agian kanpainarako ideia on bat lortuko ere.

—Nire egunerokotasuna, ba... normala, nahiko mekanikoa daiteke. Egunkarian lanegin, txaskarrilo politikoekin aritzen naiz gehienetan; arraroa da erreportaiarik interesgarriena Gimenezi ematen ez diotenean. Gimenezez nire alboan ari den putakumea... Barkatu.

—Segi, segi lasai.

—Betidanik nirekin oso ondo portatu den eta asko maite dudan Eujeiaren laguntza ordezkazinezkoa izan da.

Agamenonen hitz jario atzean psikoanalista, edo bere portaleko plakan behintzat horrela idatzi duena, zerbaitetan dabil estilografikaz paper gainean, idazten, monigoteak egiten, auskalo, hemendik ezin dezaket ikusi.

—... eta askotan baserrian astoekin jolasean ibiltzen ginen, ja, ja, a ze iskanbila sortzen genuen! Gogoratzen dut nola behin, kortan astoak ikustera sartua nintzela, txerriak ikusi nituen bata bestearen gainean, zarataka, badakizu zertan... Larrituta, izututa

arinkada batean ospa egin nuen.

Hm, hm, bizarra igurtzen du melenadunek. Interesgarria benetan. Begiak erdi hertsu ditu arreta izpi fin batetan bidaliz. Garuna piztu zaio. Abiada hutsean taldekatzen ditu hizkiak bere blokan.

—Ongi da gaurkoz. Zatoz 3 egun barru ordu berean.

Ez dakit ba honek zer edo zertarako balio duen. Nik Txomini egiten diodan kasu berbera egiten didalakoan nago. Ni hor ordubetez kontu kontari, eta bera! Ikusi ere ez dut egiten zertan dabilen.

Ez nuen uste gauzak horren ondo irtengo zitzaizkidanik. Plaka jarritz geroztik laugarren bezeroa, eta ordubete besterik ez dut behar izan arazoaren oinarria bide zuzenean bilatzeko. Baita aurkitu ere! Ez da ni bezelako psikoanalarik. Besteek urteak behar dituzte eta nik... zasta! arpoia bota eta gaitza atera. Bera ere poztuko da. Zergatia segituan aurkitu, eta gainera denbora eta dirua aurreztuko diot. Diruarena nire kalterako, baina, berdin, hobe, pobre baina profesional onena inkontzientearen mianketan.

Telefonoa.

—Bai, ez, ni ez naiz; bai, momentu bat. Luis! Zuretzat.

Hemeretzi egun bahituta egon ondoren, kazetariak bildu ditu. Gezurra dirudi oraindik katxarro zahar honekin lanegin behar izatea, «laster izango duzu bestea, badakizu Joan Mari dela gauza horietan arduradun eta gripeak hartuta ohean dagoela», bla, bla, bla. Hiru aste kontu horrekin. Bahitzaileen identifikazioaren galderari, koma,... Elektronika horetako batek bai ondo egiten duela bere lana. Hara hemen askatu zuten momentuko argazkia; hemeretzi egun bizarra moztu gabe, a ze itxura! Lotsa emango litzaidake nire argazki bat itxura horrekin argitara... Behintzat sudurra txikia du; pixkat luzetxoa akaso. Eta gaur berriz arjentinatar arrote horrengana.

Urduritasuna kanpoan utzi beharko nukeela suposatzen da,

baina, ez dakit nik ba, a ze tinbre musikala, gainera ezin diote nire buruari eragotzi gero kontatu behar dudana aldeztatik pres-tatzen ibil dadin.

—Aurrera.

—Kaixo.

Hurrengo gelan sartzen da Julio Alberto Vargas Madariaga-ren aurretik. Azkenak ate atzean itxi orduko, euforiaz estanda egiten du:

—Poztu zaitez, lortu dut! Arazoaren sustraia topatu dut! Baina orain zeure esku dago hurrengo pausoa.

Agamenon harri eta zur eseritzen da.

—Oso gazte zinela, zuzen jasotzeko prest ez zeunden irudi bat ikusi zenuen. Ordurako ezarrita zizkizuten arau moralekin bat ez zegoen bi txerri hauek sexua egiten onartzea. Hori dela medio, zure inkontzientean gordeta utzi zenuen gertakariaren zentzua, erreprimetua; baina burruka gisa ulertu zenuenaren benetazko izatea konprenitzera iritsi zinenean urteetan aurrerago, eutsitako irudia kanpora atera zitzaizun trauma bat sortaraziz. Hain bor-titza izan zen horren eragina, nerbio sistema bejetatiboan izu-garrizko indarra izan zuela, eta pixka bat aldrebesak diren erreakzio fisiologiko batzuek direla, horra hor gertatu zitzaizuna. Garunean ezarrita gelditu zitzaizun txerrien sudurzulo beldur-garrien irudia onartezinezko sexu irudiarekin erlazonaturik, eta arazoaren azalerapena horretan gauzatu zitzaizun.

Baina baina, zertan ari zait hau? Burutik jota dago. Txerrien sudurzuloekin erlazonatutako errepresioa... Orduan, astoak ikusi izan banitu horretan, belarriak luzatuko litzaizkidake? Ja. Ez nuela ulertzen zertan ari ziren. Ez, hamabi urterekin ez dut jakingo txorta jotzen dabiltzala! Noski, ez dit nuen adina galdetu ere!

—Ez zaizu pixkat arinegi joatea iruditzen soilik ordubeteko saioarekin horrelako ondorioetara heltzea?

—Zalantzan jarri behar al duzu nire profesionaltasuna?

—Ez da hori, baina beti entzun izan dut gauza hauek luze joaten direla.

—Nire kategorako batek ez dauka denbora galtzen ibili beharrik. Aurkitu dut oinarria. Zu zara orain irtenbidearen buru.

Portaletik irtetzean, Agamenonek plaka begiratzen du ironiazko irrifarre bat irudikatuz aurpegian.

Dena dela, beti pentsatu izan dut txikitatik hatzamarrak sudurzuloetan sartzeagatik izan dela.



Alfonso Gallo
Helduen mailan 2. Saria

Insignis singularis

—Ez da hori, baina behin bainu bat bainu bainu...
—Ez da hori, baina behin bainu bat bainu bainu...
—Ez da hori, baina behin bainu bat bainu bainu...

—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...

—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...

—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...

—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...

—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...

—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...

—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...

—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...

—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...

—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...

—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...

—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...

—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...

—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...

—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...

—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...

—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...
—Nur kategorio batak ez dake denbora ezberdin izan behar...

Insignis singularis



Alfonso Guillo
Helduen mailan 2. Saria

Insignis singularis

Aleste... Gero...
haz zuzen...
nosoa.

Ez dut pen...
leher botz...
men gurea...
udaberriak...
Halere, z...
bezalako...
udaberriko...
Uric batz...
samatik...
urabatu...
nik-behia.

Orduko...
nean bez...
gokitu iz...
kontur...
tragoak...

Nolanahi...
parkean...
guztetiko...
desberdinez.

—Ez...
duela has...
ondo-ondo...
Bieburk...
tara joan...
eiztan bak...
ezagutu...
Kilometre...
Itzia-



Alfonso Guilló
Helburu mailan 2. Zaria

Insignis singularis

Insignis singularis

Aiene... Gero eta ahulago jotzen du eguzkiak, eta ni neu ere... hasi zaizkit hosto batzu erortzen. Betikoa. Ahitu da udaren oparoa.

Ez dut pentsamendu mardulik sortu ahal izango neguaren lehen hotzek inguratuko nautenik; gure modura behatu eta oroi-men gunean txertatu besterik ezin izaten dugu egin, harik eta udaberriak bertatik atera eta erabiltzeko parada gauzatu arte.

Halere, zorte ona dugu guk, haritz, platano, lizar eta pagoa bezalakoan aldean, hauek lo ematen bait dute negu aro osoa udaberriko lehen hego haizeak bultza eginda bezala itzarri arte.

Urte batzu baditudanez, gaurregun koskortuta ezezik, zurrun samarrik ere banago; niretzat hain mingarriak ziren gaztetxoentzako tirabirei ikara handirik egin gabe eusteko moduan bai, behinik-behin.

Orduko gaztetxo haiek ere ez daude ni zorabiatzen nindutenean bezain malguak. Noizik behin, nire inguruan berrikeria gelditu izan direnetan entzun ahal izan dizkiet beren oraingo kontuak. Eta ez dira lehengoak bezalakoak. Eratuagoak, zuhurragoak,... askoz arruntagoak haatik.

Nolanahi dela ere, urtero berriztatzen da pertsonala gure parkean, urteroko bi txolarre habietako txorikumez, urtaro guztietako sagutxu jaioberriez eta zenbatu ezin ahala intsektu desberdinez.

Ixtorio honetara aldatuko ditudan lagunak orain bi bat urte direla hasi ziren nire ingurumarrira agertzen; zehazkiago, nire ondo-ondoan mendua baino ez nintzelarik ipini zuten jarlekura.

Bietatik lehena Itziar izan zen. Bere lagunekin. Kilometroetara joan nahi zutela..., ea ongi pasatzen zen elkarki galdezka..., etxean bakarrik joaten utziko ote zieten... Aitzol geroreago ezagutu nuen, bere adiskideek urte hartako Kilometroetan Itzia-

rrek eta berak elkarrekin zenbat barre egin zituzten gogarazi ziotenean.

Udaberri batzuetan zehar nire inguruko txolarreen amodioei so egiteak gaitu nau neskamutilen sentimendu fresku eta taupariak igarri ahal izateko. Eta aitortu behar dut, oso ditudala gogoko, hain dira gozo, garbi eta gordinak aldi berean. Tamalez, hazten doazen heinean, beren barne zirrarak pentsamenduez lotzen (nik uste nahasten) saiatu ohi dira.

Itziarren lehen sentimenduaren uhinak bere eskolan ikasbidaia antolatzeari ekin zioten egun berean inguratu ninduen.

Badirudi txangora zihoazen denen arteko bileran, Itziarrek askoren atseginekoa izan ez zen iradokizunen bat agertu ondoren, ohizko isilunea nagusitu zela. Itziarren masailen gorria gori bilakatzen hasiko zatekeen berehala, Aitzolek Itziarren proposamena bi aldiz pentsatu beharra zegoela esan ez balu.

Bilera haren ondoren, Itziar etxeratzean somatu nuena ez zen nire aldamenetik igaro eta lehen haize boladarekin joan. Aitzitik, egunean baino egunean mantsoago eta zihurrago egin zen, bere jabeak jasotzen zitzaiona lasai onartzen hasi bailitzan.

Otsail amaiera. Eguzkia bategi aterarazi berri zizkidan nagiak, eta giroaren goldea oraindik iparbeltza zen, baina neguarenak ia egina zuen ordurako, txolarreen arteko zalaparta nabarmena bait zen jadanik.

Halere, ez zen eguzkiaren partetik etorri udaberria; Ameriketako euskaldun batek, txantxetan «Euskal Herri Power» deitutuko liokeen euri epel eta etengabearen eskutik baizik, zirimiri jausten den eurilanbro zirriborrotuaren bidetik, alegia.

Ikasbidaia egiteko garaiaren ilusioek hosto berriak berdetsun distiratsuz apaintzeko abagadunea eskaini zidaten. Nire ondoko harrizko jarlekuan esertzen ziren, kontukontari, sasoi hartan han jezartzeko tokia beren adinekoez beste inork kenduko ez zien lasaitasunaz.

—«Ze ondo! Gaupasaren bat egin behar dugu!»

—«Baina ez Aubixan bezela, han builaka eta builaka jardun gendun eta. Gela batean gu hirurok alkartu eta bertan guk nahi deguna egingo degu».

—«Zera «tio», hor behean kontuz ibili beharko degu badaezpada ere, nola euskaldunak geran ezin gaittue ikusi eta».

—«Zer baina, ez dugu barren zaratarik egingo! Nik kasete txikia eroango dot, zuk karta horrek, Coca-Cola handi bat erosi eta «txatxi!»

—«Bale, bale. Neri aitak parranda guztiak oraintxe egiteko esan dit, baina ahal dala inor konturatu gabe izatea».

—«Hori dok suertea».

Ikasbidaiarako eguna iritsi zen, eta dudarik gabe, itzulera egitekoa ere bai. Gero eta giro epelagoak asebeté egiten ninduen, oraindik San Juanak heltzeko ilargi bete pare baten hutsunea somatzen banuen ere. Nire ingurumaria udaberri guztietako jaialdiaz sorgindurik zegoen, eguna bai goizetik bai ilunabar aldetik gero eta luzatzenago ari zen pozaz moxkorturik, intsektu jaioberri tropelaren kolore, hots eta mugimenduaz, txorien kantu eta habigintza arduratsuz, gizakek belarra deritzen landare txiki desberdin piloaren ernetu, hazi eta loratu beharraz, eta neguan lo egoten diren sahas, pago, haltza, haritz, lizar eta zuhaitz suerte guztien esnaeraz.

Itziar eta Aitzol nire ondoko jarlekuan zeuden, eta biak bakarrik. Antza, lortuko zuten ikasbidaiako egunen batean elkarrekin eta nahiko bakarrik egotea.

Adi-adi jarri nintzen. Gustura zeuden oso. Eta ni neu ere bai. Nire historik ziztrifienak ere indarberritu zitzaizkidan haien elkarrekiko begirada, irribarre eta ele eztez.

Baina...

(Zergatik egon behar du «baina» batek beti!)

bietako bat gusturago zegoen bestea baino:

—«Datorren astean Trinitadeak»

—«A... bai, bai»

—«Irten egin behar dezu Trinitade bezperan, gauean Aitzol?»

—«Beno».

Nire harmen osoan nengoen eta sentimendu uhin guztiak iristen zitzaizkidan inolako oztoporik gabe. Jendea ugari izan zen Trinitadeetan. Aintzinan beste. Elgoibarko zelaira San Juan aurreko ilargi beteak sekulako jendetzak biltzen omen zituen; gaurregun, arbola gehienok gizakien bizilekueetatik urrundu gaituzten arren, badakigu ez dela besta makalagoa izaten.

Zeinen bitxiak gizakiak! Lagun asko elkarturik nabaitzen ditut pozik, baina azken belaunaldi hauek, ez dakit zer gertatzen zaien, ez dute jakiten pozik edo triste noiz dauden, ez alai edo goibel zer dela eta egoten diren, eta, azken finean, beren betiko jaijan gozamina zertan datzan ere ez.

Trinitade gauean, Itziarrek etxerakoan eraman zuen bihotz minak ia-ia ihartu zidan hiru urte eder zituen adarrak lerdene-tako bat:

«... Kanean gora, kanean behera... paisen postuetatik Plaza Haundiko musikaraino... Santa Ana kaletik Maalaldeko jende pilora... Aitzolen arrastorik ez. Figurarik ere ez. Non ote zegoen? Elkar ikustekotan geratu ginen, ordea. Baina ez da bistatu... Ez al zen irtengo? Irten bada, ez da oso agirian ibili behintzat, halazankoa!

—«Ea ikusten degun elkar, ezta Aitzol?»

—«Beno»

Etxera goizo joan beharko zuen? Zerbait gertatuko zitzaion etxean. Ez dut, halere, haren adiskiderik ikusi. Ihesi ibili zait, ziur. Alferrik ari naiz. Alferrik ari naiz engainatzen neure burua. Alfer-alferrik. Ergelarena egin dut eta; berari begira-begira denbora guztian eta orain hau ez dit ba egiten!

—«Gustura al zaude nirekin, Aitzol?»

—«Bai» (Hitz gutxikoa da)

Nirekin gustura egon bazen, zergatik ez da saiatu ni aurki-

tzen?»

Akabo.

Biharamun goizean, berandu bada ere, Itziarrek ez zion irteteari utziko Aitzolen berri izango bazuen. Eta izan zuen... Baina ikusi ez zuen egin; zeharka jakingo zuen eta ez nigandik urrunegi, Aitzol eta, aurreko gauean berandu arte ibili zirela kanean.

Aski zuen Itziarrek. Eta nik, arranopola! Orain Itziarren barneminaz gain, honen gurasoen erraietarainoko kezka nuen jasateko; Lorik egiten ez zuela, ganoraz jan ere ez eta halako kontuez bete zen parke ingurua, erauntsi bat bota behar dueneko giro ilunaren pare.

Berdehusturik nengoen eta hara non, bapatean, aste hartan jo zuen hego haize ero madarikatu hark adarrak lotsagabeki astindu ondoren, ia-ia ito egin ninduen, hain zen beroa eta lehorra. Besterik ez nuen behar.

—«Ez du merezi» —ziotsan amodio kontuetan ibilixegoa zen Edurne, bere lagunak.

—«Ikusten? zu hemen sofritzen, lorik egin ezinik, apetiturik gabe eta Aitzol patxaran patxaran ezer pasatu ez balitz bezala. Ez duela pena merezi. Ahaztu zaitez. Edo... ez behintzat garrantzirik eman!»

Ongi ari zen Edurne, baina beronen aholkuak baino askozik eragin iraunkorragoa erdietsi zuen ikasturte amaierako giroak. Aspaldi samarretik, higuintzeko adina aldiz iragarri eta errepi-katutako kontuak hasi ziren gertatzen. Azken lanak prestatu beharrak, txiki-txikitatik beren hats eta arnasak babestu zituen eskola laster uzteko garaia geroz eta hurbilago izateak, ertainetako ikastegi berri arras ezezagun batean (nahiz eta, entzun nioenez, noizpait bertan egona zegoen!) izen ematera joateak eta lagun batzuk ordudanik aurrera beste eskola batzuetara joko zutela jakiteak erabat aztoratu zituzten gaztetxook.

Ezarian-ezarian, Itziarren aditasuna bahitzen joan ziren ger-

taera hauek, bere tristura eta amorrua ia-ia antzarak perratzera bidaltzeraino.

Galartxoriak ere, mutikoek, edo katuren batek, izutzen dituztenean, oso artega egoten dira; eguraldiak berak ere, badaki noizpeinka zeru guztiaren arreta bereganatzen hasarre keinu, hots eta itxura denak eginez.

Baina galartxoriek izua ahultzen den bezain agudo ekiten diote beren berriketa jolasari, eta, eguraldiak berak, inoren agindurik, ez itxaropenik, betetzen ez duelarik, ostera ere egokitzen ditu zeruaren osaleak jokia beste batez behinik-behin berriro has dadin.

Gisa horretan heldu ziren San Juan suak eta era berean jarraiki zitzaizkien Ekainaren azken egunak eta Uztaileko gau beroak, Maalako jaien ataria bista-bistan utziz.

Nire ondoko jarlekua ez zen orain neguan bezain erraz hustutzen, halajaina! Harrizko azpiei ez zeritzen hain hotz jendeak, itxura, eta gaztetxoek, bakarrik nengoeneko uneak bilatzen zituzten, nire aldamenean urtaro hotzagoetan lez egon ahal izateko.

Aitzol eta beste bi lagun jezarri ziren Maalako festen aurreko egun haietako batean. Batek, bapatean, pentsamenduari buruan anitz jirabira eragin ondoren, jaurti zuen airera:

—«Ez dago batere gaizki Itziar, ezta?»

Isilunea ezinbestekoa zen... baina ezinbestekoagoa erantzuna:

—«Zein... Itziar?»

Aitzolek, beste edonori aurrea hartuz, bere lehengo harreman ezin arinagoari, izan zuen garrantzia baino gehiago inork eman ez ziezaion edo.

«Hara: Itziar besterik gabe esan badot, zuk hartueman gehien izan dozuna, beste zein izango da ba!»

—«Hori pentsau det nik behintzat» —berretsi zion Mikel izeneko besteak, Aitzol bere eritzia berak lehenengoz ematera

bultzatuz.

«Polita da» —Aitzolek, doinua kontrolatuz.

—«Zergatik ez zinen gehiago ibili berarekin?»

—«Rollo bat zan»

—«Hor dabil; solte; baina ez dakit denbora askorako»

Aitzolen barnea pittin bat mindu zen:

—«Zergaitik atera dezu gai hau, Joseba?»

—«Badakizu zergatik?»

Eta utzi zuen tarte bat besteen arreta bereganatu bitartean, barruragotik esan behar zuena adierazteko eta, Aitzolen ezin egonaz jabetu zenez gero, honen erraietan ezten zorrotzagirik ez sartzeko hitzik egokienak hautatzeko edo.

—«Ba neri Itziar ondo jausten jata eta gero eta politagoa dago; nere gusturako behintzat. Horregatik esan dot.

Mikelek irrifarra eginda gero, barretxo bat jaurti zuen.

Eta berak jarraitu behar izan zuen, solasaldiari eginiko etenaz ohartu zen bezain laster.

—«Ba Aitzolek ez zion kasu haundirik egin, nire eritziz. Badakizu, libre dakazu bidea!... ala ez Aitzol?»

Baina Josebak bereganatu zuen mintzatzeko txanda, Aitzoli bere Itziarreko interesa baloratu eta beste bien aurrean adieraztea eragotziz.

—«Lasai. Ez eraman gauzak urrunegi. Goazen Urkiolareneko makina ikustera!»

Kitto. Iritsiko ziren Madalenak, ikusiko zuen Aitzolek Itziar, eta, nola ez ba, nire inguruko txolarre zaratosoen pare, gero eta gehiago hunkituko zen Itziarren ondotik iragan eta agur egiterakoan, ordurarte sentitu ez zituen zirrarak bere eginez; izaki guztiok, zein geure barne erlojuaren arauera, mudatzen garen lez; dantzariak ohizko doinuari, musikajoleek aldaeraren bat ezartzerakoan, hartara egokitu behar duten gisara.

Denborak burutuko zituen gainontzekoak, eta, ez zuen larregi behar izan, ez horixe.

Aitor eman ezinik utzi zuen Aitzolek Itziar, zeinak behialako sentimenduzat bait zituen Aitzolekiko haiek, berarekin ibiltzeko, irteteko gogoia, ahal izan zuen moduan iragarri zionean, San Bartolome Txikiko aukeretako batez baliatuz.

Hartua zuen eskola Itziarrek, Trinitadeetako pasadizuan, bai ongi hartu ere, inorekin gehiegi ez liluratzeko. Hala ta guztiz ere, zentzua eta barrua, biak bat egiten zituelakoan, behin-behineko baiezkoa eman zion Aitzol liluratuari.

Pozez ari nintzen loratzen ni. Nekatu ere egiten du loraldiak azkenerako, baina urte hartakoa atseginaren ondoko ahuleziaren gozamenaz hartu nuen, izan ere, Aitzolen mudaduraz geroztik ez tatan egon bait nintzen, gauzatu behar zuen sentimendua zela eritzi bait nion.

Heltzear zegoen Iraileko aldakuntza nagusia, non Ilargiak eta Eguzkiak arraunka batera egiten bait dute, Udari oraindik egiteke utz zezakeena burutzeko azken aukera zakar baina eraginkorra eskainiz. Zuhaitzok, zorionez, ezin diogu dantza honi erritmoa aldatu, eta lehenengo gau fresku luzeago haiekin batera-batera ari nintzen prestatzen, ondoren izango ziren gertakariak mantsoago, lasaiago eta patxada askozik ere handiagoz neureganatzeko.

Olatuak hartua zuen bere gaina eta bere lehen bitsak agertuak ere bai. Denboraren kontua zen hura lehertu eta, atzera gabe, apar jaialdi batean itsaso guztiarekin bat-bat egitea.

Itziar eta Aitzol?

Gizakiek, beren zorion eta beren zoritxarrerako, alda dezakete pittin bat urtaro dantza honen erritmoa, eta ene inguruko txolarreen amodioak udazkenean epeldu eta negurako hozten diren arren, Itziar soseguz-soseguz bere lehengo pilpilera jina zen Aitzolen berotasuna medio, ez tialdi berri honi zerion atsegin natural guztiaren iturria izanik.

Iritsiko ziren garai berriak eta joko zuen beste ordu bat norbere

barne erlojuan. Batera, batzutan... eta norbaitzurengan. Beste batzutan, ez; baina olatuak bere gaina hartuko zuen, geroago lehertu, eta apar jaialdi batean itsaso guztiarekin bat-bat egiteko. Denboraren kontua da.

Nire aldameneko txolarreak bezala.

Agur eta ohore, nire alboan jarlekua ipintzea otu zitzaion gizakiari!

Mirian Villasante
Helduen mailan 3. Saria


Panpoxo, nire laguna



Mirian Villasante
Helduen mailan 2. Saria

Panpoxo, nire laguna

Oraingoan ere zezala anigualla b...
baybera. EZ berog...
gumetuko txokola...
artista bat naiz n...
tzeko arazoirik g...
tzorien kantrak...
koloreky ileetatik...
mendira igo zitezakea burjatu zuzaien. Rosita bazatoz mendira nirekin? Baizt Rositak ezin zuen aratsalde hartan, bere agurtakde librea hartzen...
izan ere bostak...
Ez manea, ezin...
gari. Baina laguna behar zuen... A, zein ondo Panpoxoekin! Korrika baitan sukaldetik urten, eta barkalaurtean margotzen egon...
bedaine...
tatzoren sie zahalar, amatsoren eguekia hartzeko bankoaz, Rositaren leihoko lorepotenak —denak berdeak— iladan, bere mendirako zaparrak egurastien. Teiltua margotzeko, jakina; non ote dago gorria? Baina Panpoxo marrazteko ez zuen gorria behar. Hartu ziren orriakie zuri garbi bat eta arkantz eta mirrarteari ekin zion. Piskakaka piskakaka orriaren erdikaldes beltzez tindatzen hasi zen eta marra eui zirribarri beltzek txakur bat bezalako zerbait indikatu nahi zuten. Zenbait inkitan ez zuen arkozta erabili gogoko zintelako makula zuridun txakurrik. Belarririxoaak zintelak...
tion on bere ile bihurrien gasa, tenar eta zerusa begira jarri. Begiei tristura malenkonia arteko ihotua



Miriam Villanueva
Helduen malan J. Zaria

Panpoxo, nire laguna

buelta ematen zuen topo egiteko ikaraz. Arraintxoak bizi daitezzen pozik, harriak, landareak eta zuhaitzak ipiniko dizkiet arrainontzian. Gabonetako Jaiotzarenak. Bi palmondo luzeska haiek, bedarra egiteko botatzen dugun goroldioa, edurra diruditen aletxo zuriak, hare antza duen zerrautsa.

Oraingoan ere biziki haserratu zitzaion ama eta esan zion ez zezala animalia berririk asmatu, bere erantzuna beti izango zela bat bera: EZ borobil, erresonante eta errepikaria. Eta Mikel jaiegunetako txokolate zuria eskuan geratu zen, Paristik natorren artista bat naiz ni ahoan, Jaiotza Gabonetatik aparte desestaltzeko arrazoirik gabe. Arratsalde bikaina zegoen, zerua oskarbi, txorien kantuak zuhaitzetan, haizetxo saltarina bere azenario koloreko ileetatik sigisaga, bioleta usai pozgarria. Eta Mikeli mendira igo zitekeela bururatu zitzaion. Rosita bazatoz mendira nirekin? Baina Rositak ezin zuen arratsalde hartan, bere arratsalde librea baitzen. Ilea garbitu, eta dena erruloz beteta zuen, izan ere bostak aldera Pako —bere senargaia— zetorkion bila. Ez maitea, ezin dut, nire Pako dator gaur. Bihar e, bihar joango gara. Baina laguna behar zuen... A, zein ondo Panpoxorekin! Korrika batetan sukaldetik irten, eta bazkalaurrean margotzen egon zen tokira abiatu zen. Han tamarindo bakanaren azpian, bedarrean, orri handi bat zegoen, eta bertan, Mikelen etxea; aitatxoren ate zabalaz, amatxoren eguzkia hartzeko bankuaz, Rositaren leihoko lorepoteak —denak berdeak— iladan, bere mendirako zapatillak egurasten. Teilatua margotzeke, jakina; non ote dago gorria? Baina Panpoxo marrazteko ez zuen gorria behar. Hartu zituen orrialde zuri garbi bat eta arkatza eta marrazteari ekin zion. Piskanaka piskanaka orriaren erdikaldea beltzez tindatzen hasi zen eta marra eta zirriborro beltzek txakur bat bezalako zerbait irudikatu nahi zuten. Zenbait tokitan ez zuen arkatza erabili gogoko zituelako makula zuridun txakurrak. Belarritxoak zorroztu zizkion eta bere ile bihurrien gisa, tente eta zerura begira jarri. Begiei tristura malenkonia arteko ikutua

erantsi zien betidanik amesten baitzuen begirada mimosodun txakurñoa. Eta azkenez, buztantxo lirain eta jostaria burutu zuen, eragiten erraza, beti haraka honaka dabilen horietakoa. Bai atera zitzaiola txakur maitagarri eta zintzoa! Atzeko bi hankatxoetan eserita belarriak harro harro, burua alboraeta apur bat lurrerantz bezala, eta begirada mimosoz so egiten ziona. Ematen zuen zerbait esan nahi ziola. Orritik irten eta berarekin mendira joan nahi balu bezala. Buztanari eraginka hasi zen, begiak adierazkortu egin zitzaizkion, baina hala ere, ezin izan zuen handik mugitu. Orduan Mikelek hartu berriro arkatza eta berriro marrazteari lotu zitzaion. Oraingo marrazkiak mutiko bat bezalako zerbaiten antza zuen. Azenario koloreko ile tentea, formazioan dauden soldaduen itxurakoa, punk kantariena bezalakoa. Ur zikinez betetako aspiletan dauden oliba beltzen gisako begi beltz borobilak. Begiratu zien prakei eta praka bakeroak marraztu zituen, begiratu zion kamisetari eta arraia zuriurdindun kamiseta marraztu zuen. Eta Panpoxoren albora, ezkerretara, hain zuzen ere —Panpoxo orrialde erdi erdian baitzegoen—; zutik, Mikel txipi baten irudia ikus zitekeen. Mutikoak maitekiro ferekatzen zion burua txakurrari, eta honek, eskuak lamikatuz erantzuten.

Mikel! Mikel! amatxok joateko. Non sartuko ote zen ume petralori? Orain ere bere zorioneko marrazkiokin. Nazkatuta nauka beti lapitz eta paper batzen. Mikeltxo da barren...! Gangarra! Hau txakur galanta, motel, ezin huan handiagoa egin! Ba, ez dakit, egia esan; baina marrazten egon da, hemen gertu dabil nonon. Begira, zein farregarri dagoen! Bai antz handia eman...! Beno, beno; nahikoa da. Buruko minez nago, lagaidazu bakean. Agertuko da halako baten.

Bat batean, fereka ez tietan zerabilen eskua geratu, begietara zuzen zuzen begiratu eta galdera hau jaurtiki zion Mikelek Panpoxori:

—Panpoxo, nahi al duzu nirekin mendira etorri?

—...

Panpoxok burua oraindio alborago egin, ia ia bizkarra ikutu besteraino, eta bere begi mimoso haiekin behatu zion. Baietz esan nahi ziola zirudien baina... Orduan Mikeli klabez hitzegiten irakatsi behar ziola bururatu zitzaion. Arakatu zituen poltsikoak eta baten limoizko goxokia aurkitu zuen. Jarri zion Panpoxori mutur aurrean eta ea limoizko goxoki goxoa nahi zuen itaundu zion, lagun litxarreraren ahotik gulazko guau ozena atera zen. Gerorago beste antzeko bat; eta azkenik, erregu doinuz beteriko guau arrenkaria. Guau hirukotearen segidan, Mikelek, kendu papera, hartu goxokia atzamarren puntan, eta ahora hurreratu zion. Panpoxok antsia biziz harrapatu zion mihiaz lagunduz. Eta jarraian, hasierako galdera bera jalgi zen mutikoaren ezpaine-tatik:

—Panpoxo, nahi al duzu nirekin mendira etorri?

—Guau, guau, ... GUAU— Panpoxok.

Azkenean ere bazuen Mikelek mendirako laguna. Tamarin-dotik sei edo zazpi metrotara zegoen bidea hartu eta igotzeari ekin zioten. Aldapan gora egin ahala zirriborotsuagoak ziren orri handi hartako txakurra eta mutil ilegorria. Halako baten biragune itxi itxian Panpoxo eta Mikel bideak irentsi balitu bezala desagertu ziren. Amatxo beti legez bere eguzkia hartzeko bankuan zegoen eta eguzkia hartzeko krema eman ondoren orri zuri garbi handi batez garbitu zituen eskuak.

Andereño, bagoaz. Behar al duzu zerbait? A, Pako... begira Mikelen marrazkia! Ikusiko duzu zein antz handia eman dion. Baina, hemen laga dut eta! A, hor dago, banku azpian zimur zimur eginda! Ba, ez da. Hemen ez dago ezer. Zuriz dago. Beno, berdin dio; beste baten. Agur, andereño!



ELGOIBARKO UDAL EUSKARA BATZORDEA

Laguntzailea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa